



KARMELE ARTETXE

Etxepareren egonezina

Behin, Bernart Etxepare garaztarrak inprenta bidez irarrita utzi zuen, jakintza-arlo desberdinetan aditu euskaldunak bazirela, baina euskararik ez zutela erabiltzen. Izenik ez zuen eman, baina agian garaiko Europako unibertsitateetan ari ziren Joanes Uharte Donibanekoa, Jean eta Henri Sponde, Martin Barcos, Duvergier Haurane... gogoan izango zituen. Jarrera horrek euskararentzat zekarren ospe eta entzute falta agerian utziz, honelaxe plazaratu zuen afera (1545):

Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera zeren ladin publiku mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezein reputazione bage, eta berze nazione orok uste dute ezin deusere eskriba daiteiela lengoaje hartan nola berze orok baitute eskribatzen berian.

Nola euskara kultur hizkuntza bihurtzeko luzamendutan gerotik gerora ibili garen, lau mende behar izan ditugu horretan hasteko. Bitartean segida gutxiko saiakerak izan dira. XX. mendearen bigarren erdialdean, euskararen batasun prozesuarekin batera, euskaltzale gazteak, segida izango zuen euskara kultur hizkuntza bilakatzeko saiotan hasi ziren. Paradoxikoki, arinago prestatu eta kaleratu zen *Natur Zientziak hiztegia*, euskararen lehen hiztegi gaurkotua baino: *Hiztegi modernoa*.

Bitartean, gaztelaniak zenbait mende eman ditu bateratuta, Frantziar Iraultzak frantsesa kontsokratu zuen, eta komunikazio zientifikoaren ikuspegitik, latina nagusi izatetik, Bigarren Mundu gerraz geroztik, ingelesa igaro da zientziarako *lingua franca* izatera. Alta, Bidasoaren alde banatan triglosiak bizi gaitu: euskara, gaztelania/frantsesa eta ingelesa (hizkuntza gutxitua, hizkuntza nagusia eta nazioarteko komunikazio zientifikorako hizkuntza).

Goi-mailako euskarazko produkzioa

Berandu agian, baina, euskarazko produkzio zientifikoa abian da, eta produkzio zientifikoak berezkoa duen dokumentazioaren sakabanaketa fenomeno, *zorionez* euskarazkoak ere badu. Erreferentzia zientifiko horiek nolabait biltzeko Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea, Inguma (www.inguma.org) daukagu. Inguma datu-baseak Euskara Batua finkatzen hasi zenetik (1969), urterik urte, jakintza arloz arlo, egilez egile, erakundez erakunde ekoiztako euskarazko produkzio zientifiko-intelektualaren gaineko erreferentzia biltzen du. Datu-basean ahoz zein idatziz 6.700 bat egilek ekoiztako 26.500 erreferentzia baino gehiago biltzen ditu (adib. horietatik 9.574 artikulua dira). 2006. urtean, adibidez, euskaraz 179 artikulua eta 43 liburu argitaratu ziren, eta 21 doktorego-tesi prestatu. Asko ala gutxi den oraingoz ez dago erantzuterik, euskarazko produkzioaren bilakaera eta gaur eguneko egoeraren gaineko azterketarik ez dagoelako, ezta irizpide landurik ere. Baina euskarazko produkzio zientifikoa, hizkuntza gutxitu batean ekoiztako izanik ere, dokumentazio zientifikoaren ohiko moldeetara egokitzen da. Hain zuzen ere horregatik, posible da euskarazko produkzio zientifikoaren azterketa bibliometrikoak egitea (produkzioaren diagnostiko egoki eta sustapen-politika zein geroko estrategiak diseinatzeko), edota egileen produkzioa ebaluatzea.

Unibertsitario euskaldunen ebaluazioa

Inguma-ziurtagiria, datu-basean erregistratuta dagoen edozein egilek eska dezakeen (bere) ekoizpen zientifiko-kulturaren egiaztagiria da. Azken buruan, ziurtagiria unibertsitateko kideen curriculum-garapenerako instrumentua izateko sortu zen. Aurten, 541 egilek eskatu dute *Inguma-ziurtagiria*. Konparaziorako, iaz 178 ziurtagiri eskatu ziren. Zer gertatu da? Otsailean Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak (Uniqua) UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen merezimenduak ebaluatzeko eta ordainsari-osagarriak eskatzeko deialdia ireki zuela. Euskal Unibertsitatearen EAEko legeak, euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzeko Uniqua sortu zuen. Agentziak, beraz, EAEko unibertsitate, titulazio eta irakasle zein ikertzaileak ebaluatuko ditu. UPV/EHUko erkidego unibertsitarioa ebaluatuko du aurten. Irakasle zein ikertzaileak, funtzionarioak zein lagunak, elebidunak zein (gaztelaniaz) elebakarrak, guztiek ebaluazio prozesu berdina izango dute. Horietako askok *Inguma-ziurtagiria* eskatu zuten Uniqualen aurkezteko.

Gaur egun goi-mailako euskarazko produkzioaren egile naturalak unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak dira (hortik kanpo ari direnak gutxiengoa dira). Euskal Herrian dozena erdi unibertsitate dauden arren, irakasle eta ikertzaile euskaldun gehien dituen unibertsitatea UPV/EHU da, 2.000 bat irakasle euskaldun baititu. Beraz, Uniqualek martxan jarritako prozesuaren helburu nagusia ordainsari-osagarrien esleipena bada ere, zeharbidez, euskarazko produkzioa ebaluatu beharko du.

Hizkuntzak, produkzio zientifikoa eta ebaluazioa

Gaur egun, egile euskaldunek goi mailako produkzioa hiru hizkuntzetan ekoizten dute: ingelesez, frantsesez edo gaztelaniaz, eta euskaraz.

Ingeleseko produkzio zientifikoa guztiz estandarra da. Izan ere, ingelesez prestatutako artikulua zein liburua ebaluatzeko irizpideak eta tresnak (SCI, JCR...) erabat finkatuta daude.

Frantses eta gaztelaniaren kasuan, biek ala biek hizkuntza komunitate normalizatua dute, nahiz produkzio zientifikoa kolokan duten. Sasoi batean frantsesez modu normalizatuan ekoizten zen maila zientifikoa. Ingelesa erabateko *lingua franca* bihurtu baino lehen, frantsesa nazioarteko komunikazio zientifikoa erabiltzen zen. Aldaketaren adibide da, Pariseko Pasteur institutuak, 1989. urtean, nazioarteko ospea zuen *Annales de l'Institut Pasteur* aldizkariari *Research in Microbiology* izena eman ziola. Gaur egun arlo honetan, komunikazio zientifikoaren arloan alegia, frantses, gaztelania, edo alemanaren moduko hizkuntza nagusien egitekoa eta lekua ez dago argi. Eztabaida hor dago, estatuotako ebaluazio agentziek ingelesezkoa baloratzen dute gehien, arlo zientifikoa eragin handiko produkzioa delako; baina bestalde, espainiar Estatuak adibidez, gaztelaniazko lan zientifikoak ebaluatzeko ikerketa taldeak sustatu ditu (Granadako Unibertsitatekoa, CINDOCekoa...), eta ebaluazioak egiteko tresnak garatzea diruz babesten du (adib. IN-RECS, RESH, eta abar). Beraz, hein handiz, frantsesezko eta gaztelaniazko produkzio zientifikoaren ebaluazioak ingelesaren analogiaz egiten dira, eta ingeleserako SCI dagoen bezala (hau da, egileen lanen aipuak zenbatzen dituen datu-basea), gaztelaniarako beste horrenbeste egotea nahi dute. Zilegi da, baina ez da gure ardura.

Eta euskarazkoa? Zein da euskarazko produkzio zientifikoaren egitekoa gaur egun? Zelan ebaluatu hizkuntza txiki eta gutxitu batean eginiko goi-mailako produkzioa? Gaur egun ez dago hizkuntza gutxituetan ekoiztutako produkzio zientifikoa ebaluatzeko proposamenik, ez nazioartean, ez hemen, eta arras konplikatua da.

Uniqualen irtenbidea: irtenbide politikoa

Uniqualen irtenbidea, matematikoa da: bider 1,2. Hau da, irakaskuntza zein ikerkuntzaren esparruetan irakasle edo ikertzaile batek lortutako puntuazioa biderkatuko da aipatutako koefizientearekin. Baldin eta esparru bakoitzaren erdia unibertsitarioak euskaraz garatu badu. Koefiziente hori aplikatzea eta ez beste bat, Aditu Batzordearen erabakia izan da. Ez EHAA n argitaratutako ebaluziorako protokoloan, ez web guneko dokumentazioan (www.uniquale.es), ez dago 1,2aren hautatzearen gaineko azalpenik, edo nazioarteko erreferentziaren aipamenik. Berriro ere, arestian aipatutakoa errepikatuko dut: koefiziente hori asko ala gutxi den oraingoz ez dago jakiterik, euskarazko produkzioaren bilakaera eta gaur eguneko egoeraren gaineko azterketarik ez dagoelako, ezta irizpide landurik ere.

Bestalde, ebaluziorako bete beharreko eskari normalizatuari bi arazo gutxienez ikusten dizkiot. Hasteko, euskarazko irakaskuntza zein ikerkuntza aintzat hartzeko, hartara egokitutako eremuek, alegia jardueraren hizkuntza profila zehazteko eremuek, inprimaki-eskari normalizatuan egon beharuko lukete, eta ez daude. Beste alde batetik definizio arazo bat ere badago: ikerkuntza euskaraz ebaluatuko bada, euskarazko ikerkuntza zer den zehaztuta agertu beharko luke.

Irtenbide berrien xerka

Euskarazko produkzio eta prosa zientifikoaren historia eta bilakaeraren inguruan oraindik ezer gutxi dakigun honetan, eta euskarazko goi-mailako produkzioaren azterketa kuantitatiborik gabe (esaterako, *Scientometrics* eta tankera bertsuko aldizkarietan argitaratutako lanez ari naiz), euskarazko produkzioa ebaluatuko dela errealitate bat da. Ebaluzioaren bitartez euskarazko produkzioa kaltetu (edo gainbailoratu) nahi ez bada, beharrezkoak dira ikerketa espezifikoak, hausnarketa-lana eta hizkuntza gutxitu baten bilakaera so-

zial zein linguistikoari egokitutako eta sistematizatutako irizpideak. Adibidez, hizkuntza gutxitu batean eragin faktorea zer den birdefinitu beharra dago, zeren eragin faktorea existitu existitzen da, baina desberdin. Ekologiarako lehen ikasliburuaren idazleek (Hiztegi modernorik gabe), 1977. urte hartan eragin handiko lana argitaratu zuten (*Ekologia*), baina ISBNrik ez duenez, mekanikoki Uniqualek baztertu egingen du.

Era berean, kontuan hartu beharko litzateke bateko eta besteko azpiegitura zientifikoaren oinarria zein den, hizkuntza bakoitzean goi-mailako produkzioa eusten duen azpiegitura zientifikoa desberdina baita. Hala, ospe bereziko erakundeak ingelesez edo euskaraz desberdinak dira. Euskarazko ekoizpenaren gehiena euskalgintzaren esku dago, hau da, euskal kulturgintzan diharduten erakunde eta elkarten esku, eta urrunetik, unibertsitateak eta bestelako erakunde publikoak daude. Ingelesezko produkzioak, aldiz, Erresuma Batuan egiten denak esaterako, halakorik ez du. Beraz, ospedun erakundeak batean eta bestean desberdinak badira, Topaguneko edo UEUko zuzendaria izatea, euskaltzain osoa, ohorezkoa edo urgazlea izatea, nola ebaluatu behar da?

Laburbiltzeko, egile euskaldunen euskarazko, gaztelaniazko/frantsesezko eta ingelesezko goi-mailako produkzioaren ebaluazioa oinarrizko printzipio baten arabera egin beharko litzateke: hizkuntzaren arabera. Hau da, hizkuntza bakoitzaren azpiegitura eta bilakaera sozial eta linguistikoa aintzat hartuz finkatutako irizpideen arabera. Une honetan ingelesezko badaude, gaztelaniarako abian dira, eta euskararakoekin hastear gaude.¶



ALBERTO BARANDIARAN

Utikan ekaitza

Utikan izeneko agiriak ekaitz batek bezala astindu du euskal letren paisaia. Sinatzaileen testua ikusita, bederen, horrela esango luke begiraleak. Horrela, sinatzaileen beraien zerrenda eta astintzeko antzematen den borondatea ikusita. Ekaitza, danbateko handia, esango luke begi zorrotzak. Asmoa bidean geratu dela ematen du ordea. Astinaldi handia, azkenean, dardara txiki bat izan dela. Haizeak mugitu egin ditu ihiak, kito. Orain, barealdia berriro. Barealdi infinitua.

Badirudi arazoa dela ez dela ondo ulertu sinatzaileen asmoa. Akaso sinatzaileetako batzuek ere ez dutela ondo neurtu asmoaren potentzialitatea, eragina, noraino irits zitezkeen danbatekoa. Euskadi Sariarekin hainbat lagun hase-rre daudela izan da toki askotan egin den interpretazioa. Honi eta besteari saria ematen ez diotela-eta, purrustada. Literatur talde bateko kideen arteko agiri ia pribatua. Ezinegon kroniko baten azken korroka.

Ez da ondo transmititzen jakin.

Sari baten aurrean azaldutako kritika kolektiboa baino askoz gehiago delako Utikan. Askoz gehiago izan liteke, behintzat. Izan liteke, esaterako, literatura sistemari buruzko gogoeta zabalak. Euskal literaturak dituen gabeziei buruz azterketa egiteko aukera. Izan liteke Jon Alonsok zabaldu nahi izan dituen Manuel Vazquez Montalbanen gogoetak gure egin eta hemen ere ezartzeko idazki-zubia. Esaterako, kanonak paratzeko orduan, komisario politikoak, komisario kulturalak, komisario politiko-kulturalak eta are kritikariak ere sobera daudela dioen hori. Utikan horren aitzakiaz, esa-

terako, kanonen erlatibizazioaz hitz egin genezake, gogoeta egin Vazquez Montalbanek dioen horretaz, kritikak obra bakoitza irakurtzen berrikasi behar duela dioen horretaz.

Utikan hori, izan liteke, beraz, kanonaz, kritikaz, komisarioez eta irakurketaz, baita sariez ere, hausnarketa serio egiteko abiapuntutzat har genezakeen idazkia. Baina ematen du ez dela hori ondo azaldu. Ematen du sinatzaileek ez dutela ondo transmititu. Edo, akaso, ez dutela ondo transmititzeko gogo edo asmorik izan. Akaso ez da ondo ulertu Vazquez Montalbanen beste ondorioetako bat, Jon Alonsok gogorazi nahi izan duen hura. Bere burua irreduktibletzat jotzen duen eta bere baitan kiribilduta dagoen literaturaren arriskuaz eta patuez ohartarazten duen hura.

Museo nazionalaz

Guggenheim urtea izan da 2007, eta duela hamar urte erraldoia sortu zutenean bezainbeste hitz egin da, aurten, proiektuaz, eta etekinaz, onuraz eta ederraz. Ondorioa oso argia da. Guggenheim, batez ere, egitasmo ekonomikoa izan da —ekonomiko-kulturala, esango luke kontseilariak; ados, baina ekonomikoa azken finean—, eta hor du arrakasta aurkitu. Bilbo ingurua berpiztu, zaharberritu, itxuraldatu eta bere burua edertzeko ezinbesteko tresna izan da Gehryren eraikina. Ez da gutxi, noski. Egitasmo ekonomiko biribila izan da, hori guztia lortu baldin badu. Baina askoz gehiago? Erakusketa eder batzuk. Askoz gehiago? Askoz gehiago ez. Kultura deitzen den ente hori mugitzen duten korronte sakonak ez dira gehiegi mugitu Guggenheim sortu zenetik.

Juan Ignacio Bidarte zuzendariak berak onartu du, horretaz galdetu ziotenean, hau ez dela museo nazionala. Hau Guggenheim museoa da, XX. mende bukaerako ikonoetako bat.

«Hau ez da museo nazionala», esan zuen Bidartek. Zein da, baina, gure museo nazionala? Behar ote dugu horrelakorik?

Bitxia da, baina askotan aldarrikatzen da liburutegi nazionala, artxibategi nazionala, kultura plan nazionala, are se-

lekzio nazionala ere. Museo nazionala, ordea? Zeinek eskatzen du museo nazionalik?

Herri txikia da hau. Historia luzea izan arren, inoiz osorik kontatu eta aztertu gabea. Baina, osorik kontatu eta aztertua izatera, ustekabeak eman ditzakeena. Zergatik ez, demagun, ideia bat da, zergatik ez Santimamiñeko kobazuloak eta Veleiako aztarnak elkarren ondoan erakutsi? Ondoan, Nafarroako erromanikoa, eta lehen erregeen garaiko gaztelu sarea? Ondoan, Iparraldeko lurraldeetako jauregi eta etxe handien errolda, eta lehen euskal idazkiak, eta ahozko tradizio guztia, Arabako Gebaratarren eta beste guztien armarien erakusketa, eta euskal arrantzaleen tradizioa, argazkiak eta bideoak barne, eta gaur egungo pintoreen koadroak, eta Arantzazu, eta Loiolako emari guztia, eta hilarrien errepaso birtuala nahi bada, ez dena fisikoa akaso, baina errepaso sendo bat, eta, ondoan txalaparta, eta Badiola, eta Arta, eta Cristina Iglesias, eta Barandiaran, Mitxelena, eta gaurko poetak, eta gastronomiaren usadioa, eta Aita Donostia eta Emiliana Zubeldiaren partiturak, eta artisauak, eta trikuharriak edo argizaiolak?

Zergatik ez bildu San Telmon, Bilboko Arte Ederretako Museoan, Baionako Museoan, Nafarroakoan, Txillida-Lekun, Artiumen, Altuzako Museoan dauden erreferentziak eta horiek denak hari bat bezala azaldu? Zergatik ez bilatu haria, seguru asko haria egongo delako denen artean, zergatik ez bilatu, beraz, eta kontakizun eder, dibulgatiboa nahi bada, baina kontakizun eder, sendo, argigarria egin?

Arazoa ez da eskumena. Ez litzateke, ez mundu birtual honetan bederen, ezta eraikin bat ere egin beharko. Horretarako nahikoa litzateke pentsatzea merezi duela herri honen historia azaltzea. Merezki duela kontatzea zein izan den bere buruari Euskal Herria deitu izan dion giza multzoaren kultur ekarpena. Kontatzea zer utzi duen, mendeetan zehar, gerorako. Bere osotasunean aztertuta eta kontatuta, horrela bakarrik ulertuko delako etorkizunean egin dezakeena. Hor egongo litzateke, inon izatekotan, Euskal Herria.

Eta Guggenheim, egitasmo ekonomikoa izanda ere, horren barruan sartu beharko litzateke noski.

Ez da oso azkarra izan behar ohartzeko errazago altxatu-ko genukeela beste Guggenheim bat, museo nazionalaren inguruan ados jarri baino lehen.

Frankfurteko lezioa

Frankfurteko Liburu Azokan kultura katalanaren gonbidapenak eztabaida handia sortu du Katalunian baina, batez ere, Madrilen. Gaztelaniaz idazten duten idazle katalanen presentziaren inguruan gertatu da, batez ere, kalaka. Hauek, azkenean, ez dute parte hartu Ramon Llull Institutuak antolatu dituen ekitaldietan, baina azokan egon dira, nola ez. Frankfurteko Azoka argitaletxeen munduko azokarik garrantzitsuena baita. Eztabaida, beraz, kutsatuta egon da hasieratik, baina balio izan du nolnahi ere katalanez idatzitako ekoizpenaren tamainaren benetako neurria hartu ahal izateko.

Balio izan du, era berean, katalanez hitz egiten den lurraldeetako eragileek kulturaren estrategikotasuna nola bizi eta ulertzen duten ikusteko.

Alemanez eta katalanez burutu ziren Llull Institutuak antolatu zituen ekitaldi guztiak. Guztiak. Euskal ordezkariak, esaterako, alemanez, gaztelaniaz eta ingelesez egin zuen egitarau ofizialean antolatuta zeuden bietako bat.

Katalunia, Balear Irlak, Andorra, eta Valentziako, Sardinia-ko eta Ipar Kataluniako hainbat udalen erakusleihen ofiziale-tan, katalanezko jatorrizko bertsiokak eta alemanezko itzulpenak ikus zitezkeen. Euskal editoreen elkartearnean, ber-ritz, gaztelaniaz eta euskaraz ziren liburu gehienak.

Bai, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen dituzten argita-letxeetako ordezkariak batera hartzen dute, Frankfurteko azokan, euskal editoreen erakusleihoa. Euskara hutsez argi-taratzen duen argitaletxe gutxi dago Euskal Herrian. Baina nago garrantzitsua dela euskarazko ekoizpena bereiztea. Gaztelaniaren filtrotik derrigorrez ez pasatu behar izatea.

Frankfurten, egin behar izatekotan, alemanez eta euskaraz bakarrik egin ahal izatea.

Identifikazioa, hori dela garrantzitsuena azpimarratu dute katalanek. Hori dela modu bakarra Europan onartuak izateko. Euskal kultura eta euskal literatura, zerekin identifikatzen dute Frankfurten?¶



MIKEL BUJANDA

Fikzio beharrik ez da Nafarroan

Nafarroan nork agindu; Nafarroa egunez eguneko aktualitate hedabideetan; Nafarroa salgai; trukerako txanpona. Nafarroa, gakoa, lurraldetasunaren baldintza bazterrezina. Nonahi. Noiznahi. Alde eta molde anitzetan Nafarroa hizpide, auzi, ardatz eta muina.

Nafarroan dema etengabea da, hori badakigu: egungo estatusa eta ordenamendu juridiko-politikoaren aldekoen parean, euskal/eusko fakzioa, edo tribua, beste euskal herrialdekoen kide, nazio izan nahi lukeena. Norgehiagoka hori dugu hemengo gertakarien motor eta gidari: erabaki, ekimen, proposamen eta adierazpen, gehienak banalerroaren bi aldeetakoren batean daudenen lehia gupidagabearen araberaren ematen dira.

Horrela, akzio politikoetan, Nafarroako Gobernuak auzitara eraman du Jaurlaritza, honen hezkuntza curriculumean bi erkidegoen bereizketa nafar gobernukoek nahi luketen modura egina ez dagoelako. Edo intromisio eta injerentziaren mamuaren espantuak aditu ditugu, hizkuntza arloko lankidetzara iraunkorraren proposamena egitean balizko *organoren* baten aipua egin denean. Edo Iruñeko Udal agintariak debekua jarri diote Euskarazko Produktuen Katalogoari, Euskal Herriaren mugen barnean marraztua ageri delako Nafarroa.

Adibide batzuk dira. Nafar agintariak zelatan ditugu, guardian beti, euren lehen eginkizuna horixe baita, Nafarroaren diferentzia nabarmentzea, ordenamendu politikoak agintzen duena esparru guztietara hedatzea. Diferentziazionismoaren dantza teatralizatuak dozena bat episodio izan ditu.

Besteon egitekoa, aldiz, egungo estatus juridiko-politiko dena delakoa izanik ere, hizkuntzak eta kulturak definituriko erkidegoa ukatu behar ez litzatekeen errealitatea dela erakusten saiatzea da. Inor konbentzitzeko moduan egiten dugun ala ez beste kontu bat da, ongi aztertzea, eta horretara bideratu ditu bere indarrak baten batek; geure argumentuen formulazioak balio duen ala ez zalantza da, baina duden gaienetik dago sentimendua jartzen dugula. Funtsean sentimenduen talka baita arrazoiena baino gehiago: nongo kide eta erkide sentitzen diren eta garen. Kidetasun sentimendua, perrenentziaren ideia subjektibitateari zor zaionez, nor bakoitzak bizi izan duen bizi-esperientziari darion sentipena denez gero, hementxe gabiltza elkarren ondoan, elkar ukatuz.

Nonahi topa daitezke adibideak. Jar dezagun sindikalgin-tzan; konfrontazio ala kontzertazio, bi ereduak, bi jokamoldek bereizten ditu Nafarroan ari diren sindikatuak. Baina horri erantsirik, beste tasun batek definitzen ditu: sindikatu abertzaleek konfrontazioa hautatu dute; estatalek negoziazioa eta paktua. Bi estrategietatik emankorrena euren dela erakusteko, Comisiones Obrerasek azterketa konparatiboa egin du, eta Nafarroa eta EAEn indikadoreak elkarren ondoan jarri. Egia osoa esanik, ondorio moduan atera daitezkeena, bi autonomietan, lorpen sindikalak aunitz eta handiak direla, eta gizartean dauden hutsak eta beharrak, oso antzeko. Beti ere, alderaketan ari gara, norgehiagokan, emulazioan grinatsu eta garratz. Elkarren ondoan, paraleloan. Horrek motibatzen gaitu. Horrek biziartzen.

Horiek ez dira kontu berriak, ohikoak baizik aspaldi honetan.

Baina iragan den 2007 honetan, sekula baino intentsitate handiagoz bizi izan dugu talka, dema eta lehia. Obsesionatzeraino ia.

Hemerotekara jo beharrik gabe, gogoan ditugu maiatz azkenetik abuztu hasiera arteko joan-etorriak, bilkura eta negoziazio saioen itzulinguruak, Nafarroako boterea jokoan. Espektatibetan gorabeherak, une batean gerta zitekeela ziru-

diena gero ez, baina eskura, iritsi-hurren egon da agintaritza aldaketa. Ziaboga bat baino gehiagoko negoziatioaldi luzearen ondotik ezetza etorri zen. Ezezkoa aldaketari. Betao eta ukoa euskal fakzioko politikariei. Esklusioa. Estabilitatearen izenean, Nafarroaren izaera sakratua ozen erabiliz; Madril-dik etorri zen agindua. Nork emana? Hortxe intriga eta espekulazioa ugari izan lezakeen literaturarako lehengaia. Fantasia gehiegi ukan gabe ere, zer gertatu den ulertarazteko saiakeran eman liteke gela iluneko goi agintaritza ezkuturen baten hipotesia, *esentzia-zaindia* edo gisako erakunderen baten Espainiaren batasuna hausteko arrisku handiegizat jotzea Nafarroan agintaritzan abertzalerik ikustea, bildots otzarenen larrupean izanik ere. Nola azaldu bestela, gerora sozialistek —gogoz kontra, beharturik— onartu duten morrontza? Goi arnasa duen agindua nabaritzen da hor.

Zer esanik ez, Nafarroarik gabe irtenbiderik ez eta lurraldetasuna negoziatio prozesuan atea ireki ez duen gakoa izan dela egiaztatu dugu. Nafarroa ala ezer ez; eta azkenean esku-hutsik. Horrek ere eman lezake literatura, gehienbat analisi kritikoaren bidetik.

Egia deserosoak

Nafarroaz ari beharra arlo guztietan sumatzen da kronika periodistikoetan ez ezik iraupen luzeagoko idazkietan. Liburuak ez ditugu salbuespen izan. Nafarroaz mintzatu behar obsesiboarekin kutsaturik edo, fikziotik gutxi, eta 2007ko idazki eta argitalpenak gehiago izan dira geure errealitateari bekoz beko begiratzeko gogoeta egiteko lanak. Kronika periodistikoek egunez eguneko berehalakotasunean jasotzerik ez duten analisia eta, batez ere, egunari berea zor diolako unearen gatibu itsu den kazetagitza amnesikoarekin kontrastean, atzo eta herenegun gertatuak, esanak eta eginak gogora ekartzeko balio dutenak. Eta horiei begirada kritikoa emateko. Libelo, alegatu edo saiakera, literatura politikoa eman du urteak.

Horrela, Aingeru Epaltzaren *Bezperaren bezpera*. Azken 30 urteotako okerregiteen katalogoa da hein batean. Nafarroako abertzaleen ibilbidean, aukera eta erabaki desegokiak, alferrik galtzen utzitako oportunitateak. Ugari baitira huts eginak, jokaldi baldarrak, aldrebeskeriak. Dena nahi eta zerbait eskuragarri izan duenean, gutxiegi delakoan mesprezu egin eta apur horiek hartu gabe utzi. Epaltzak abertzaleen praxiari eman dio batik bat inarrosaldia. Pamielak atera du liburua.

Xabier Zabaltza Perez-Nievasek aldiz, bere *Gu, nafarrok* izenburukoan, oinarri ideologikoak maiseatzen ditu. Ez bakarrik abertzaleenak; baita *navarrista* hegemonikoenak ere. Antzak aurkitzen ditu, berdintzak. Bakoitza bere mitifikazio eta mistifikazioetan, uste baino hurbilago daude. *Eusko-nafarrak eta erdo-nafarrak*, Estornes Lasak inoiz erabili zuen terminologia berpiztuz, enbor bereko adarrak dira. Batzuen eta besteen dogmatismoaren jipoia astintzen du Zabaltzak. Alberdaniak egin du edizioa.

Sainz Pezonagak beste era bateko ekarpena egin du *Los Vascos en la Ribera de Navarra* tituluko lana aterata. Azpi-izenean adierazia dago Diego Pascual Erasok eginiko artikuluko periodistikoaren bilduma dela. Nafarroako Erriberan, Corellan sortua, Pascual Erasok paraie haietako izaera, zen eta den bezala, abertzaleek errespetatu eta aintzat hartu beharrekotzat jo zuen. Eztabaidak izan zituen errepublikaren denboretako bere alderdikide jeltzaleekin.

Bistan dena, egun abertzaletasunak duen hutsunerik larriena, Erriberan ez sustrairik, ez indarrik batere ez izatearena delarik, irakurlea arrastoan eta pentsaka jar dezake lan honek, bateragarri ote diren euskal nazionalismoaren planteamendu politikoak Erriberako bizipen, sentipen eta interesekin. Bide batez, Sainz Pezonagak berak gauzak nola ikusten dituen ezagutarazteko bide eman behar luke lan honen. Besteak beste, bere proposamena Euskal Herri guztira-ko proiektu politikoak izan behar lukeen izen bikoitzaz.

Alez ale, ateratzen ari dira Jimeno Jurioren lan guztien bildumako liburuak. Asmo editorial handia da. Hori baino

gehiago —hitzaren bilakaera fonetiko eta semantikoaren jolas bihurrian sarturik—, *erraldoia*. Jose Mari Jimeno zenaren semeak hartua baitu lan horien edizioaren berrikusketa, eguneraketa, koordinazioa eta bultzada. *Roldan* Jimeno, *erraldoi* dabil, handiera hiperbolikoan. Lan horiek Nafarroaren errealtatea erakusten digute, hori begira daitekeen ia perspektiba guztietatik. Nafarroa nolakoa den ezagutzerik ez du Jimenoren lana irakurri ez duenak. Aurreiritziak gainditzeko sendagai bikaina da. Dogmatismoen uxatzailea.

Urtea amaitu da eta ez du argia ikusi Santi Leonéren lan berriak. *Nasciturus* honi buruz aurreratu dezakeguna, nazioen imajinarioak sormenaren emaitza izan ohi direla, erkideek sorturiko asmazioak. Aurki atera behar lukeen horrekin, Leonék jarraipena emanen dio orain baino lehen argitara emana duen *Los Fueros de Navarra como lugar de la memoria* bere lanari. Navarrismoaren doktrinaren ahuleziak eta faltseamenduak xehatu zituen orduan. Navarrismoaren sasi-oinarriak deskribatuz, salatuz.

Nafar agintariek ez dituzte liburugileak maite

Nafarroako egungo agintariek ez dituzte liburugileak maite. Ez behintzat etxeakoak. Zaletasun handia duten arren honetan eta hartan aurrenekoak, aitzindariak garela harro esateko. Propaganda ofizialean maiz entzuten ditugu pionerismo ergelean. Harro mintzatzen ahal ziren liburugintzaz, Nafarroako argitaletxez. Liburuak kulturgintzaren adierazpiderik gorenak direla esaten ahal zuten, sektore dinamiko eta produktiboa dela. Bizilagunen proportzioan, liburu gehien ekoizten duen herrialdea dela gurea, baina ezin. Ezin liburuak goretzi, ezin kulturaz harrotu. Maingu dabilta horretan.

Nafarroa manikeo honetan, banalerroaren bestaldean dago kokatua liburugintza. Iruñeko Pamiela eta Tafallako Txalaparta elementu desafektoak dira *navarrismo* hegemonikoaren begietara. Ez dute Nafarroaren bertsio ofiziala dibulga-

tzen. Beste ildoan dabilta. Ez dira sormenetik ateratako fikzio entretenigarrien zabalkunde hutsera mugatzen. Pentsaera eta saiakera, ikuskera hedatzen ari dira, agintaritzari komeni ez zaion moldean.

Txalaparta editorialeko buru izateaz gainera, polemista, ekile eta ekintzaile, idazle ere bada Jose Mari Esparza Zabalegi. Bide luzexka egin du honez gero haren *Cien razones por las que dejé de ser español* liburuak. Bidea egiten ari da oraindik, bosgarren edizioaren ondotik.

Inpaktuko lana da, izenburutik hasita ausarta, baina probokaziotik izan dezakeena tituluan baizik ez dago, eta prejuizio hori saihestuz gero, doinu didaktikoz egina dagoen testua ageri da. Bizipen pertsonalen benetakotasuna eta tradizio idatzian topaturiko testigantzen balio ukaezina tresna baliagarriak dira, espainiar izateari uzteko hautua arrazoizko bihurtzeko. Arriskuak alboratzen badaki Esparzak, espainiarren —espainiar jendearen— aurka deus ez duela espresuki esanik. Problema ez dago jendearekin, baizik eta estatuko botere egiturarekin eta honen inposizioarekin.

Euskal Herriko gizartea deskribatzean, idealizaziorako joera da ziurrenik punturik ahulena; indartsuena, aldiz, kultura arrotzetan lau herrialde exentoez diotenaren bilketa —tradizio literario alemaniarrean, esaterako—. Hor erudizio erakustaldia dago.

Zer pentsa ugari ematen duen liburua da. Esaten duenagatik, iradokitzen duenagatik. Ehun arrazoi jaso badira liburuan, joan den urteko kronika periodistikoari erreparatuz, beste ehun gehitu ahal izanen lirateke, espainiarren monarkia, epaileak, hedabideak zertan aritu diren oharturik. Baina ispilua bestaldera jarrita, ez ote genuke ehunka arrazoi topatuko euskalkide izateari uzteko? Geure arteko mehatxu, agresio, ukazio, intolerantzia, fanatismo eta beste horrelako, banan-banan zerrendatzen hasita, liburu gizona egin daiteke, erkide izateari aio arrazoiturik esateko.

Errepara honi: Nafarroako jendearen izateko modu kolektiborik baldin badago, liburu honetan daude berezitasunak

eta ezaugarriak. Nortasunaren funtsezko elementu bat, inposiziorik ez onartzea da. Nonahitik datorrelarik inposizio hori.

Azken batean

Nafarroa gakoa, muina, problema. Hurbiltzen hasi gara: ingurura begiratzen eta Nafarroan gauzak nola dauden esaten. Begirada kritikoa bota eta nor eta zer garen pentsaka. Nafarroako jendeak gauzak nola ikusten dituen, gizarte horrek esan eta erabaki behar baitu zer nahi duen. Bateragarri al da Nafarroaren nortasuna Euskal Herriaren izaerarekin? Nafarroako jendea —gehiengoa— konbentzitzeko modukoa behar du erantzunak.

Nola Euskal Herria egituratu Nafarroaren nortasuna kamustu gabe? Nola egin Nafarroako jendea sentitzeko Euskal Herrian?

Orain arteko formulazioak huts egin du. Zergatik, egiteko moduagatik? Edo sakoneran dago gakoa?

Debatea aspaldisko hasi da, baina astiro eta era sistemati-koan egitea komeni da. Badira proposamenak: biraketa kopernikarra eman eta Nafarroa jarri ardatz; edo nabarrismo baskistaren erroetara jo; edo erlatibizazioa... Izan daitezke beste batzuk: disoziazioa. Balio gutxi du esentzialismoak. Hemen ere nondik gatozen bai, baina batez ere nora goazen da galdera nagusia. Ez du balio errua beti besterena dela esaten ibiltzea. Hori umekeria da. Heldutasuna eta irizpide kriti-koak behar dira. Galderak egiteko garaia da. Galde-moduak ongi formulatu eta ondoren erantzuna bilatzen hastekoa.

2007ko uzta literarioa bide horretan barneratua etorri da. Gainera, irakaspenak ateratzeko moduko gertakariak utzi dizkigun urtea izan da.

Urte hasiberri honek Olinpiar Jokoak ekarriko dizkigu, eta, horrekin, espainiar (eta frantses) patriotismoen zalapartak datozkigu, banderez eta himnoez puzturik. Baina urru- tiago datorrenari begira gaude.

Nafarroan aldiz, ikusmiran, hurrengo Olinpiadak ditugu, 2012koak. Ordurako, konkistaren bosgarren mendeurrena iristen denerako, aurkituta behar genuke formulazioa: pentsalariak, intelektuak lanean behar ditugu, astiro eta soseguz, ideiak sortuz eta iritziak emanez, besteenak ezagutzuz, harreman dialektikoan gurutzatuz, eta proiektzioa emanez debateari libelo, alegatu, gogoeta edo nahi den moduko idazkien bitartez.¶



PANTXOA ETCHEGOIN

Iparraldean urtean zehar iragan ekintza guztiak ezin daitezke aipa bizpahiru orrialdetan, baina gure eguneroko bizian hautuak eta hautuak egin behar direlako, lau gertakari begi-bistan ezarriko ditut: *Batekmila - Euskal munduak*, Euskal kultur erakundeak ekoiztu erakusketa multimedia berria; ahozko bilketa programa baten abiapuntua Nafarroa Beherean; nahas-mahas aurten taularatuak izan diren ikusgarri zenbait, nola antzerkian, hala dantza eta musika alorretan; eta, azkenik, Kanbon iragan diren Hizkuntzen eta Kulturen Topaketak.

Batekmila - Euskal munduak erakusketa multimedia

Nork ez du aditu edo ikusi komunikabideetan *Batekmila - Euskal munduak* izeneko erakusketa bat bazebilela Baionatik Donostiara, gero bertze lurralde batzuetara, Euskal Herriko beste lurraldeetara, baina ere Euskal Herritik kanpo joateko xedearekin?

Ekainaren 23an zabaldu dugu Baionako Carré Bonnat erakustokian Euskal kultur erakundeak sortu duen erakusketa ibiltari hau. Lehen-lehenik erran behar da ber denboran mugaz gaindiko, mugarik gabeko eta partaide anitzeko sorkuntza bat izan dela. Alabaina, Gipuzkoako Diputazioa, eta oroz gainetik Koldo Mitxelena Kulturunea gure lanaren partaide izan da. Halaber, bertze hainbat partaidek besoak zabaldu dituzte guri laguntzeko. Horien artean, aipa nitzake Digitalak lantegia, Bilboko Euskararen Etxea, Euskal Telebista, Eresbil, Arteleku, etabar. Zinez horrelako ekimenak

ugaldu behar ditugu, euskaldunen artean berean elkar hobeki ezagutzeko, euskal mundu horietan urrats ttipi batzuk elkarrekin egiteko, eta mugaren muga psikologikoak ohiltzeko. Hori elkarlanak baizik ez dezake erakar!

Orain forma aldetik, nahi ukan dugu erakusketa berritzailer bat ekoiztu, lau hizkuntzatan, gaurko teknologiak erabiliz eta interaktibotasunari ateak irekiz. Edukiek, berriz, bidaia poetiko bat eskaintzen diote bisitariari euskal munduen bihotzean, kulturaren, ekonomiaren, geografiaren eta sozialaren bidez. Baina, oroz gainera, bi gauza nahi nituzke azpimarratu: alde batetik, jendeen lekukotasun ugari agertzen da erakusketa horretan, garrantzitsua iruditzen baitzaigu lehenestea, euskaldunek —eta bertzeek— nola bizi duten beren euskaltasuna edo kultura eguneroko bizian, bai hemen, bai munduan gaindi; eta bertzetik, filmen bitartez, askatasun osoa eman diegu gazteei, beren ikuspegia ager zezaten euskal mundu horietan gaindi.

Oro har, erakusketa honek arrakasta ederra ukan du orain arte, eta ekintza berezien egiteko parada ezin hobea izan da, Baionan eta Donostian, hainbat mintzaldi, kontzertu, bisita gidatu eta elkarrizketa sorrarazi baititu.

Ibiltaria denez, bidaia luze bat egin behar luke ondoko hirlabeteetan, hala nola Bilbon, Gasteizen, Hendaian, Bordelen, Getxon, Iruñean, Lillen, Korsikan eta Europan gaindi.

Azkenik, erakusketari datxikola, Euskal kultur erakundeak Internet atari berezi bat sortu du (www.batekmila.com), hain zuzen erakusketaren osagarri diren argibide edo eduki berezi batzuei begiratzeko.

Ahozko ondarea: bilketa berri bat abiatua da Nafarroa Beherean

Aurten hasirik eta datozen urteetan, Euskal kultur erakundeak indar berezi bat egin nahi du Euskal Herrian toki garrantzitsua daukan sail batean: ahozko ondarea eta ondare inmateriala (bizi lekukotasunak, bertsoak, legendak, atsotitzak, ipuinak, kantuak...).

Gizarte landatarra bereziki, denbora guti barne, pasatu da ahozko ohidura batetik irudian eta soinuan oinarritu komunikazio batera. Baitezpadakoa da, beraz, ahozko altxor horien biltzea lehenbailehen ez baldin badugu nahi betiko galduak izan daitezen. 1980ko urte horiez geroztik, hainbat kultura elkartek lan egin dute sail horretan, baina gaur egun orokortasun batean ikusi behar da gai hori: eiki, bildu bai, baina ere ongi baloratu, bereziki haur eta gazteentzat hezkuntzaren bitartez, eta dudarik gabe, sorkuntza artistikoen hazkunderaz.

Helburu horrekin, Euskal kultur erakundeak abiatu du lan bat Nafarroa Beherean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Euskokultur Fundazioak Nafarroa Garaian egiten duten lan berari segida bat emanez eta haiek bidean ezarri duten ekimena eredu hartuz.

Konkretuki, Amikuze aldeko lekukotasun batzuk bildu ditu, jendeak grabatuz eta filmatuz gai zenbaiten inguruan (zurgintza, eskulanak, aroztegia, nekazaritza...), gero lan horiek indexatu, DVD moduko euskarri batean ezartzeko gisan, eta nola ez Interneten.

Lan honek segida bat ukanen du ondoko urteetan ere, Iparralde osoan nahi baikenuke zabaldu, partaidetzan gure elkarteekin.

Sorkuntzak jori Iparraldean

Orokorki, erran dezagun sorkuntza andana bat izan dela Iparraldean 2007. urtean, denak ez baditut aipatzen ahal ere, batzuk publiko zabalari zuzenduak, eta beste zenbait haur eta gazteei.

Lehenik, urte hastapenean, Hiru Puntu deitu euskal antzerki taldeak *Baionan bizi* izeneko komedia eskaini zigun, Antton Luku garaztarrak idatzi obran oinarriturik. Testuak aipatzen du, frankotan omore anitzekin, gazteek etxebizitza baten ukaiteko dituzten arazo larriak.

Antzerki honek arrakasta ederra ukan du, bereziki Korrika kari, anitz tokitan erakutsia izan baita.

Nahi nituzke ere beste bi ikusgarri handi aipatu, non dantza, kantua eta musika gurutzatzen baitira.

Lehenik, lehenetsi nahi nuke Zuberoan, Eskiulako herriak apailatu duen sorkuntza: *Dinbili Danbala* dauka izenburua eta historiaren haria Vivaldiren *Lau urtaroak* lanetik ondua izana da, sasoi bakoitzari erranahi bat emanez: negua, lehenagokoen aroa; larrazkena, adin ona; uda, gaztetasuna eta amodiozko jokoak; eta bedatsa, haurtzaroa.

Ikusgarriaren kalitateaz gain, plazer egiten du ikustea 540 biztanle diren herri ttipi batean, gai direla urte batez 50 aktorez goiti, ttipi eta handi, elkarretaratzea egitasmo komun batean parte hartzeko. Eiki, zuberotarrek horrelakoen ohi-dura badute pastoralekin bereziki, baina ere bestelako ikusgarrietan, belaunaldien arteko harremanak bizi-bizirik atxiki nahi dituzte, euskararen eta euskal kulturaren ohakoan.

Halaber, beste kultura gertakizun bat ere iragan da Biarnon, Paueko Zenith ikusgarri gela handia bete duena, Lagunt eta Maita elkarteak antolaturik. Honek Paueko milako bat euskaldun familia biltzen ditu, eta oroz gainetik zuberotarrak. Aurten, beren berrogei urteak ospatzen dituztela, *Izar Bide* antzezlanak eskaini dute, erbesteratzeari buruzko gaia aipatuz, Pier-Pol Berzaitzen *Zeruko izarren bidea* kantua hari gisa zutela.

Ehun eta hogeiki kide, amateurrak eta profesionalak, aritu dira *Izar Bide* prestatzen urte batez; eta, egia erran, uzta ederra eman dute, erakutsiz kantu, bideo eta dantzekin tradizioa eta gaurkotasuna uztar daitezkeela gure euskal munduetan gaindi.

Beste emanaldi bat ere nahi nuke aipatu: Burrunka taldeak alhan ezarri duen *Ufaka zanpaka* ikusgarria. Hau perkusioen, gaitaren eta dantzaren arteko gurutzatze bat da, 40 bat musikari eta dantzarik apaindua, zuzendari nagusi bezala dute-larik Beñat Amorena, eta dantzarentzat Jose Casaubon. Euskal mitologia gaitzat hartuz, Euskal Herriko eta munduko musiken nahasketa aberats bat ediren dute, sormenari ateak irekiz.

Azkenik, gure kulturaren etorkizuna diren haur ttipiak ere ez dira ahantziak izan, bertzeak bertze Elirale dantza konpainiak eskaini duen *Lodikroko* ikusgarriarekin, Amaia Hennebutte-Millard idazleak ondu poesia eta ipuin liburu batean oinarriturik.

Horra hor eguneroko kultura bizitasuna erakusten duten gertakari zenbait. Horrelako ekimenak baitezpadakoak ditugu gaur eta bihar, gure euskal kulturaren zerizana bera sorkuntza baita.

Hizkuntzen eta kulturen topaketa

Urte guziz biltzen dira lurralde batean, Frantziako herri hizkuntzez arduratzen diren erakunde eta elkarteetako ordezkariak. Aurten Erramun Baxok soziolinguistak bultzaturik, Iparraldeak luzatu die gomita, euskal kultura sostengatzen duen Herrien Arteko Sindikatua, Euskal kultur erakundea, Euskal Konfederazioa eta Euskararen Erakunde Publikoa partaide zirelarik. Kanbon iragan da bilkura azaroaren 7tik 10era eta gai nagusia zen: «*Hizkuntza politika eskualdeka, Estatuaren aldetik eta Europa mailan*». 60 ordezkari elkarretaratu dira, Frantziako eta itsasoz haraindiko 10 eskualdeetarik. Euskal Herrira etorri dira Alsazia, Bretainia, Korsika, Okzitania, Katalunia, Guyana, bai eta ere Martinika, Mayotte eta Reunion uhartekoak.

Eskualde bakoitzak gutartean erakutsi du aurten edo azken urte hauetan zer gertatu den hizkuntza politikaren alorrean. Hizkuntza politika aipatzen da botere publikoak bere gain hartzen duelarik herri-hizkuntzen zaintzea eta aitzinaraztea. Eskualde askok aipatu dituzte politika gorabeherak, eta, egia erran, bada orokorki gora baino gehiago behera! Hor agertu da azkenean, besteri konparatuz, Ipar Euskal Herrian badela memento honetan dinamika bat euskararen alde, ofizialtasuna falta baldin bada ere. Gure lana izan da Euskal Herriko hizkuntza politikaren aurkeztea, ekintza konkretuak aipatuz. Besteak beste, arratsalde bat antolatu dugu Do-

nostian, *Batekmila* erakusketa ikusteko Koldo Mitxelena Kulturunean, eta Miren Azkarate Kultura Sailburuaren entzuteko, Jaurilaritzaren hizkuntza politika aurkeztu duelarik.

Bigarren egunean, Europa eta hedabide berriak ziren mintzagai.

Eskualdeetako hizkuntzek badute oraingo hedabide tresna berrien beharra. Irratietako eta telebistetako adituak entzun ditugu. Adibidez, numerizazioak zer aldaketa harrigarriak ekarriko dituen, herri-hizkuntzek ere baliatu behar dituztenak aitzinatu nahi badute. Mugaz gaineko hedabideek ere badituzte zailtasunak: lehen hertz-uhinetan errazki pasatzen zen Euskal Telebista, orain ez da pasatzen (TNT) lurreko tresna numerikoarekin.

Bestalde, Europari buruzko mintzaldi aberats bat entzun dugu. Europako erakundeek, alde batetik hizkuntzen eta kulturen aniztasuna goraki aipatu dute, eta gure gain da baliabide berrien aurkitzea herri-hizkuntza ahulagoen alde, elkarrekin jokatzuz proiektuen finkatzeko eta diru laguntzen erdiesteko.

Azken egunean, biltzar nagusia izan da, topaketen helburua baita eskualdeen arteko lankidetzaren antolatzea. Bi helburu finkatu ditugu. Alde batetik, CNFPT (Centre National de la Fonction Publique Territoriale) erakunde ofizialak bere gain har ditzan herriko etxeetan lan egiten dutenen formakuntza elebiduna, eta INSEE estatistika erakundearekin jende-kontaktak egiten dituen ikerketan, familiako hizkuntza jarraipenari buruzko galdeketen integratzea, 1995ean Euskal kultur erakundeak erdietsi zuen bezala, baina geroztik desagertu dena.

Bururatzean, gomita ukan dugu heldu den urteko topaketak Guyanan egiteko, ber denboran ikusteko zer aurrerapen izan den urte batez herri hizkuntzentzat eta ezagutzak egiteko hamar hizkuntza eta kultura ezberdin dituen eskualde batekin.¶



TERE IRASTORTZA

Hezteko, askatasuna

Igande arratsaldea, 17:55. Txokolate punta bat hartu eta delibero tinko bati eusten diot: *Jakin*-erako artikulua gaur amaitu behar dut. Beste ordu t'erdiko lantzat hartu beharrean nago: ez daukat idatzitakoa zuzentzea beste lanik. Badakit euskal curriculumaz aritzean, eta gure haurren mundua irudikatzean, bizimodu osasungarri bat begitandu beharko nukeela, baina Titin eta Barriola arteko partida ikusteko pailomitatik egin dizkiegu semeari eta beraien lagunei, eta nik tarte honetan amaitu nahi dut artikulua. Konturatzen naiz txokolatea txarra dela gu bezalako bizimodua daukatenez... baina dagoeneko jana dut txokolatea. Badakit bizimodu lasaiago bat nahi dudala gure seme-alabentzat, baina arratsalde honi zukua atera beharrean nago.

Eta halaxe sentitzen dut euskaldunon egunen gurpilaren bira: enbarazu eta estropezu artean euskara eta euskal curriculumaren aldeko bidea egiten ari da, ez nahi erara, baina bai ahal erara: Euskal curriculumaren izeneko dekretua iritsi da gure mahaietara. Egin zitekeen onena, ziurrenera, eta baita ere egin nahi genukeenetik urrun, zerbaitetan hasten den guztiari askotan gertatu ohi zaiona. Badugu, aurrenekoz, euskal curriculumaren izeneko lege bat... eta badugu, irakaskuntzan ari garen batzuek, gure egitekoa legez gehiago zehazten duen eremu bat.

Eta dekretu honen alde eta aurka ari garen bitartean, badirudi ikastetxeetan erabiltzeko ordua ere iritsia dela. Mintza gaitezen, orduan, irakaskuntzaz, diot, nire artean. Gogorra dezagun bizi izan duguna, azter dezagun egiten duguna, pentsa dezagun nola egin egin nahi duguna.

18:16. Ikasteaz eta ezagutzeaz. Titin eta Barriola arteko partida emozioz betea da, haurren oihuei kasu egiten badiet. Ikusi gabe ere, beraiek kontatuarekin irudikatuko dut izan dena, eta bihar ez naiz kirolak abiarazten dituen elkarrietzeta guztietatik kanpo egongo. *Non burutu da, galdetuko diet, nolakoak izan dira tantoak? Zenbatgarrenean iruditu zaizue erabakitzen zela partida?* Eta galdetuko didate zergatik ez dudan ba ikusi, jakin nahi banuen.

Eta nik esan nahiko diet, irakaskuntzaz idatzi nahi nuela, eta ezagutu gabe, ikusi gabe ikas ote daitekeen ez pentsatzeak kezkatzen nauela. Zer da, izan ere, irakaskuntza? Nork erakusten du, non erakusten da, zer erakusten dugu, nola erakusten dugu? Erretorikoak dirudite galdera hauek, galdera guztiek, galderak besteei jaurtikitako harriak direnean. Baina errotikoak dira galdera hauek, irakaskuntzan dihardugunontzat, beti. Irakaskuntzan lan egitean, gizartean eragiten dugula uste eta sinetsi nahi dugunontzat, bederen. Egunen gurpilari erritmo mekanikoa ezarri beharrean, eragiten ikasi behar dela uste dugunontzat, sikiera.

Artikulu honek, beraz, ez du inolako asmo pedagogikorik. Ez diot inori esan nahi zer egin behar duen eta zer ez. Eta ezagutzen ez dugun hainbeste gauzaz galdetzen zaigunez, egiten dugun lanaz hausnartu eta ikasteko asmoaz baliatzen naiz *Jakin*-ek emandako idazteko askatasunaz, ikastea beti jakinari eraginez berriz hastea ere bai baita.

18:26. Nork erakusten du? Irakaskuntza babesten du men-debaldeko kulturak, denontzako irakaskuntza. Demokraziaren lorpenontzat eta hastapenontzat har daiteke edo esku-lana ondo bideratzeko eta hezteko baliabidontzat. Baina hala da.

Irakaskuntza babesten eta bermatzen dute estatuak edota administrazioak; eta gizarteak, derrigorrezko hezkuntza bermatzeko, bere baliabideak bideratzen ditu irakaskuntzara. Eta horiek horrela ikastetxeak bihurtu dira irakas-toki (bakar).

Aldi berean, ordea, moderno deitzen dugun gizartean, helduek bere hezitzaile protagonismoa galdu dute. Esan ohi da

gizarte tradizionaletan helduek eta zahar jakintsuek egiteko handia zutela heziketan, bai lanbideak erakusten eta baita tradizioa eta esperientziak transmititzen ere. Durkheimek 1911n zioenaren arabera, irakaskuntza tradizioa ordenatuz irudikatze kolektiboen transmisio bidea zen.

Moderno deitzen dugun gizartean berrikuntza eta modernotasunari egokitzen erakustea bihurtu da, baina, irakaskuntzaren erronka handienetako bat, eta, berrikuntza teknologikoaren abiadak hala eraginda, eta hainbatetan liluratuturik, berrikuntzetara egokitzea bihurtu da gizartearen irakaskuntza premiarik handienetakoa.

Iruditzen zait, hala ere, aurrekoari beste arrazoi batzuk ezarriz —posmodernitatean egiaren inguruan egindako kritikak sortutako egonezina, kasu, edota askatasuna aukeran dagoena aukeratzearekin lotzeak esate batera—, helduen gizarteak —egun gizarte zibila deitzen dugunak— tokia galdu duela Euskal Herriko irakaskuntzan. Eta zehazkiago gurasoen parte-hartzea izugarri eraldatu dela eta desagertzeko joera ere har dezakeela.

Jo dezagun seme-alabak hezkuntza sistemara murgildu beharrean zauden ama edo aita zarela. Legeak aitortzen dizu ikastetxea hautatzeko eskubidea, alegia, gure inguruan hiru hezkuntza sare artean hautatzeko eskubidea. Gurasoen egiteko nagusia ikastetxea hautatzean geratzen da sarri. Bizitzan, asko jota, hiru edo lau aldiz: Haur Hezkuntzan, Derrigorrezko Hezkuntzan, eta Derrigorrezko Hezkuntzaren osteko aukeretan. Eta gero, haurrak sistema batean sartu ostean, sistema horrek bideratu ei ditu egoera guztietarako irtenbideak.

Gurasoek, gure garaiko hezkuntza sisteman sumatu ere ezin zuten mailako ezaupidea izan dezakete beren seme-alaben norabideari buruz, hala nahi badute. Banakako bilerak eta talde bilerak finkatuta ohi daude, eta gurasoek irakasleari bilera bat eskatu orduko ez da izaten normalean aparteko zailtasunik norbere haurraz aritzeko; eta ikastetxean bertan, aniztasunaren trataera medio, garai baten aldean, baliabide asko eskura dezakete haurren heziketarako.

Esan dezakegu, gainera, hezkuntza sistema, sistema beza-la, hobetu egin dela azken hamarkadetan.

Horiek denak hala izanik, nabarmengarria da, hala ere, gurasoen ardura bere seme edo alabarekiko arduraren esparrura mugatzen dela, nagusiki, eta ez heziketa horren antolaketa, kudeaketa eta erabakimen mailan. Hartaraino non irakaskuntzaz eta formakuntzaz deliberatzea irakaskuntzan lanean dihardutenen egiteko bihurtu dela ematen duen, eta ez seme-alaben heziketaren ardura dutenena. Zergatik ote?

18:51. Mozarten Stadler kintetoarekin, K 581, haren adagioan. Oso argi dute askok zergatia. Auzi honetan ez da bosteko harmoniazkorik osatzen eta aurrez aurreko partida dirudi. Irakaskuntzan askotan mintzatu ohi da gurasoen utzikeriaz, eta gurasoen artean irakaskuntzan dihardugunon bizimoduaren erraztasunaz. Eta lantu-jotzeon errazkeriaren azpian egon daitezkeen arrazoiez ere pentsatzen jardun dut. Bina ahala bina esparrutan errazago dirudi beti «errudun» bat bilatzea, edo dena txarra dela esatea, baina bideetan —ama izaki eta irakaskuntzan arituki— erabaki dut irtenbide salomondarrik ez dagoela auzi honetan, baizik eta bietan, sarri, ardura ez hartu nahi izateko joera gailentzen dela.

Gurasoak ala irakasleak, Titin ala Barriola... ez dut faboritorik markagailua oraintxe arestian 16-10 jarri den arren. Eta gorabeherak gorabehera, arduraz aritzea, beti, funtsean, askatasunaz aritzea dela erabakitzen dut, Mozarten Minuetara iristerako. Are gehiago... berdina ez bada bi eratara aurkezten den eztabaida.... Eta irakaskuntzari buruz dugun ikuspegia gizarteari buruz dugun ikuspegi berbera ez ote den: haurrak ere beste norbaiten esku uzteko joera.

Askatasuntzat dugu dauden aukeren artean hautatzea... baina apenas iruditzen zaigu aukerak sortzea ere askatasun horren adierazpide daitekeenik. Nabarmenago da ikuspegi hori Erkidego Autonomoan, Nafarroa eta Iparraldearen aldean, eta beldur gabe esan dezaket, askotan sentitu baitut

jendeak erotzat hartu gaituela hainbat ikastola sortzen aritu garen guraso eta irakasleak —gaurko egunean!—.

Baina hara nola, konturatu gabe, *Fantasia* entzuten ari nintzen, Carl Maria von Weberren Kintetoaren 2. mugimenduan.

17:24. Carl Maria von Weber. Menuetto. Capriccio presto. Askatasuna dagoena aukeratzea bada, dagoenera egokitzea da. Eta inork beste nolabait jokatzeko bada, kapritxo batetik dela deritzo: gutizia bat, seta bat, akaso. Halaxe, jo dezagun, delako aita edo ama zarela eta dauden sareen artean ez duzula zure seme edo alabarentzako ikastetxe egokirik ikusten. Legea urratu gabe hezi nahi baduzu zure haurra, aurren-aurrena beste guraso batzuk aurkitu behar dituzu, edozein administraziok baimentzeko moduko eraikina eskuratu eta obratu, hura ordaintzeko diru iturriak eta mailuak lortu, eta horren ostean bideko oztopo tekniko guztiak gainditzeko adurra izan.

Gizartea eraldatzen ari bada, legezko lirudike irakaskuntza sistema ere eraberritzea gizarteak berak eraginda. Aurren, ordea, zerbitzu-emaile bihurtu nahi den administrazioaren jokamoldea oso kritikatu izan da etorkinen gaiarekin eta beraien integrazioarekin.

Bere burua euskalduntze prozesu eragiletzat duen irakaskuntza sistema batentzat ez dago etorkinik, erdaldunik baidarik, baina oraindik ere erdal gizarte honetan atze, atzeko herritarrak euskaldunak garela ahazteko urrats guztiak eman dira eztabaidan. Euskaldunentzat, hizkuntzaren eta kulturaren ikuspegitik, orain datozen erdaldun saldoak orain hirurogei urte etorritakoen pareko izan daitezke. Erdaldun hauen integrazioaz izugarritzko indarrarekin mintzatzen da, orain, kasik, lehen euskaldunen asimilaziorako egindako indar berberaz. Sarri eztabaida honetan gurasoen iritziak eskatzen direnean, litekeenik eta ikuspegi arrazista eta klasistarena emateko izaten da... Nahiz eta gure ikastetxeetan euskaldun diren haurren %25-30 baino ez den euskal jatorri-

koa, eta gainerakoa erdal jatorrikoa edota familia mistoetako den.

Estatu laiko batean, erkidego aurrerakoi batean, guraso atzerritar izatea, seme-alaben heziketan ere, eskubide gabeko guraso izatearekin parekatu behar ote dugu? Gure hizkuntza eta kultur tradizioa erakustea beraiena galaraztetik ote dator? Bekatua ote litzateke beste eskola-eredu batzuk ituntzea, hemen dagoen eskola ereduan ezin badute gurasoek bere heziketa bermatu, ez ote dute eskubiderik, hemengo legediak ezar ditzakeen baldintza batzuetan, beraien proiektua bermatzeko? Ziur al gaude gurea baino okerragoa izango dela?

Beldur naiz, administrazioa ez ezik... gure gizartea ere ez ote dagoen prest etorkin hauen heziketa-eskubidea bere osotasunean bermatzeko. Beldur naiz, Euskal Herriratu ostean, bigarren hazaldian euskaldundu direnek ez ote dituzten lehen kritikaturako joerak berretsiko.

Eta legea urratu gabe norbere seme-alabarentzat nahi den heziketa bermatzeko, berriro etxea bakarrik gertatzen da.

Hilabete hauetan zabaltzen ari da fiskaltzak haurrak eskolaturik ez dauzkaten familiekiko hartu duen jarrera. Sekula jarrera hori hartu behar ez duenik esan gabe ere, garbi ikusten da, azken kasu hauetan, badagoela ikasketa prozesu bat, eta ziurrenik, erabat pertsonalizatua eta mamitua dagoen heziketa proiektu bat ere, haur horien inguruan. Estatuak hartzen du kasu hauetan ez adin txikikoen tutela, ez bada, gurasoen tutela.

Azken adibide bat aniztasunaren izendapenak, batzuetan, estaltzen duena da. Zeren eta irakaskuntzaren porrota, batzuetan, aski ez saiatzearen ondorio izan badaiteke ere, batzuetan irakaskuntzak berak porrot egiten du haur batzuekin, saiatu arren ere, eta bere ubidera, gizartearen ubidera eraman beharrean, irakaskuntzak berak botatzen ditu behin eta berriz bazterretara, ito arte erabiltzen ditu batzuetan bere zurrunbiloak, haurrak izan beharrean, gizaki izan beharrean, kodifikatu eta ordenatu beharreko mundu seriatu bateko ale bailiran. Hala, haur batzuek ondo ezagutzen ez di-

ren zailtasunak dituztenean, gelaz gela eta psikologo psikologo erabiltzen ditugunean, derrigorrezko irakaskuntza amaitu arte, sarri beraiantzako egokia ez ezik batzuetan erabat nekagarri eta erasotzaile bihurtzen den egoera batera behartzen ditugu. Eta halakoetan ere ez dirudi zilegi hainbat haur, kosta ahala kosta, sistemara egokitzeko porrotaren ondorioz, ahaleginaren ahaleginez, nekearen nekez, birrindu gabe irakaskuntza sistematik ateratzea.

Eta, orduan, gizarteak —edota gurasoek— heziketan, eta ez etxeetan ematen den heziketan bakarrik, baizik eta irakaskuntza-sisteman ere behar duten eraginik ezean, berriro irudikatze kolektibo eta talde-sinesteen arteko desoreka areagotu egin daiteke.

18/98. Tarterik ez. Ordu terdi honetan hainbat atal ezabatzeko itxaropena nuen, eta hala ere, luzatu egin naiz irakaskuntzaren subjektuen gaian, gurasoen erabakimenaren gaian. Ez, lehen esan bezala, pedagogia egiteko asmoarekin, ez bada, tarte bat egitearren gizartean hezkuntzari buruz dauden aurreikuspenek sor ditzaketen arazoez.

Laurogeita hemeretzi minutu pasatu dira. Titinek irabazi du txapela eta nahiago zukeen aitak janztea. Laurogeita hemeretzi urte ere pasa daitezke urek guk uste dugun bideetara etortzerako, eta bitartean txapela beste batzuei eskaintzen ere jarraitu beharko dugu, esate batera, askotan bidez erratuta ere, askatasuna aukerak sortzea dela uste dutenei.

Zeren eta askatasuna ez baita kapritxo bat. Zeren eta askatasuna, ardura bat ere bai baita. Zeren eta askatasuna, funtsean, norbere baitan jokatzeko ez bada egokitze-aukera izatera mugatzen baita. Eta beti sistemak behar dituen baliabide guztiak jartzeko zain dagoenak ez du sekula ezertarako abagunerik topatuko. Eta hauxe da, hain zuzen ere, daukagun hezkuntza sistemaz edota dauzkagun sistema guztien alde eta aurka sinbolikoki ari garenean gertatzen zaiguna.

Eta hortxe dago, agian, bigarren koska, zer erakusten dugu... erakutsi ezin duguna bizi dugunean? Eta, berriz diot,

ez dut pedagogiarik egin nahi: besteen arduraz aritzea norberarenaz ahaztea bezala ere bai baita!... Hain goxoa da, izan ere, txokolatea! Hezteko, askatasuna, askatasunean hezi nahi badugu.¶



INAKI IRAZABALBEITIA

Abbadia saritik Snowen bi kulturetara

Imanol Urbietari eman diote 2007ko Abbadia saria. Merezimendu osoarekin jasoko du Imanolek Gipuzkoako Aldundiaren omenaldia. Imanolek euskara, musika, pedagogia eta hainbat osagai puntu-puntu sukaldatzen jakin izan ditu. Ez naiz ni bere merezimendu profesionalak gorai-patzera etorriko, alor horretan neronek baino jakiunde handiagoko beste batzuek egingo baitute aiutuago. Pertsona nabarmendu nahi dut hemen, lagun maitagarri, atsegin eta gizakoaia. Horretatik ere badu Imanolek.

Héroes telesaila emititzen ari da ETB2 igande gauean eta seriearen kapitulu berrien antena-eskubideak erosi ditu *Berria* kazetan leitu ahal izan dugunez. Sail horren lehen 26 kapituluak euskarara bikoiztuta daude, Eusko Jaurlaritzak DVD merkatuan euskaraz bikoiztutako pelikulak sustatzeko aurten abian jarri duen programa baten ondorioz. ETBk telesail hori euskaraz emititzeko antena-eskubideak ez omen ditu erosi, iturri fidagarrietatik esan didatenez. Hori horrela bada, bi galdera tupustean. Zein da ETBren funtzioa euskararen normalizazioan 2007an? Euskaraz bizitzeko aukera egin dugunok bigarren mailako herritarrak ote gara?

Uste dut lehen galderari buruz gogoeta sakona ireki behar dela gizartean, bereziki iragarri berri dituzten ETB3 eta ETB4 sortzeaz daudenean. Ez zait iruditzen, bestetik, ETB jarrita dagoenik euskararen normalizazioak XXI. mendeko lehen hamarkadaren bukaeran behar dituen parametroen neurrian, eta horretarako jaio ei zen besteak beste.

Bigarrenari buruz, entzun dezakegu, sarritan egin ohi dugun moduan, euskarara bikoiztutako produktuek ez dutela ETB1en funtzionatzen. Litekeena, baina funtziona dezaten, programatu egin behar dira jendea ohituz joan dadin. Erroma ez zen ordubetea konkistatu! Bestalde, ETB1en programatzen den zinearen kalitate artistikoaz on gutxi esan daiteke, eta horrek ere izango du eragina. Neroni ez naiz telebista ikusle arrunta, aitortzen dut, gutxi eta aukeratuta ikusten baitut. *Héroes* ez dut ikusten; *Heroiak*, akaso, ikusiko nuke, *Wazemank/Noaoa* ikusteko eta *Vaya semana* ez ikusteko ditudan arrazoi berberengatik.

Amaraunean euskarazko informazioa aurkitzea ez zen lantegi erraza ohizko bilatzaileen bidez. Izan ere, *Google*, *Yahoo!* eta enparauek ez dute kontuan hartzen euskara beren bilaketa-aukeretan ezta euskararen nortasun gramatikalak ere, hots, bere izaera aglutinatzailea. Hortaz, bilaketaren emaitzetan euskara ezin da lehenetsi eta euskarazko informazioa erdaretakoenaren ostean agertzen da, eskuarki. Jazoera hori, euskaraz eta hizkuntza nagusiren batean grafia bera duten terminoetan hagitz nabarmena da: energia, anorexia edo Paris. Euskararen altxorreko berba laburrekin ere gertatzen da: katu, asto, ama edo aitarekin. Euskarazko erreferentziak erdarazkoen ozeanoan galdutako irla dira bilatzaile horietan. Urriaren erdialdean aurkeztutako *Elebila* gazbia hori estaltzera etorri da. Notizia handia euskaraz bizi nahi dutenentzat, ez dute haboro itzultzen ibili beharko eta euskarazko erreferentzia terminologikoak eta fraseologikoak ere izanen dituzte begi bistan. Corpusaren normalizazioan ez da ahuntzaren gau erdiko urratsa!

Bestalde, *Elebilak* euskarazko amaraunaren ahuldadeak agerian utzi ditu. Interneten 4.000.000 inguru euskarazko orrialde daude. Ez da hori txantxetako marka! Hain segur, euskarak amaraunaren rankingean duen posizioa hiztun-kopuruari legokiokeena baino gorago kokatuta dago. *Elebilak* erakusten du, ordea, askok sumatzen genuena, edukiak de-

sorekatuta daudela. Bilaketak agerian uzten du euskarazko eduki entziklopedikoen gabezia edo kamustasuna. Dagigun ariketa bat. *Elebilan* ‘jirafa’ hitza eskatuta 182 erantzun lortuko dituzu. Begiratu batean ohartzen zara, lehen erantzunen artean behintzat, informazio entziklopedikorik ez dela agertzen. *Wikipediara* joanez gero, ‘jirafa’ ez da sarrera. *Harluxet Entziklopedian* 44 hitzeko definizioa du. Murrirtza oso eskolarako lan bat egiteko! Ariketa berak kontzeptu eta termino askorekin antzeko emaitza ematen du. (Miñaoko Parke Teknologian Wikipediako sortzaileak Jimmy Wales-ek emaniko datuen arabera, gu baino handiago batzuk okerrago dabilta Wikipediaren munduan. Euskarazkoan 22.000 artikulua inguru daude, 300 milioi hitzun dituen hindian 11.000 baino ez. Kontsolamendurako sikiera!)

Gure arduradun politikoak arazoarekin kezkatuta daude, agidanez. PESI 2.0 (Plan Euskadi para la Sociedad de la Información) egitasmoan Interneteko euskarazko entziklopedia lehentasunen artean kokatzen da. Eusko Jaurlaritzaren 2008ko aurrekontuetan ere aipatu egiten da, azterketa-mailan hala ere. Txutxu-mutxuek diotenez Eusko Jaurlaritza Microsoften *Encarta* itzultzeko asmotan omen dabil. Bide bat izan daiteke arin-arin eduki unibertsal asko euskaraz izateko. Mendekotasuna ere badakar, jakina. Kezka handiago sortzen dit, hala ere, itzulpen horrek nola errainatuko lukeen Euskal Herriaren errealitate sozial, historiko, kultural eta politikoa. Espainiako argitaletxe handien testuliburuen anitz itzulpenek erakusten digute lokalizazioak zer ez lukeen izan behar. Hori konpon liteke Euskal Herriari eta euskal kulturari buruzko edukiak berariaz euskaraz sortuta. Alabaina, munduaren nolako ikuspegia ematen du obra horrek? Euskal ikuspegia islatzen al du? Etsenplurako, ez diegu berdin begiratzen herri eta kultura txikien errealitateari Euskal Herritik eta Madrildik.

Beste bide batzuk ere jorra daitezke amarauna euskarazko eduki entziklopedikoz hornitzeko. Ezin al daiteke pentsa Wikipedia edukiz hornitzeko ahalegin egituratuak antolatzeko

diru-laguntzak bideratzea? Bide hau ez legoke *Encartaren* bi-dearekin kontrajarria; osagarria da, erabiltzaileari aukerak ematen zaizkiolako. Eta zergatik ez Euskal Herrian alor horretan dabilzan agente nagusien elkarlana bilatu eta oso-osorik bertatik abiatutako proiektu bat bideratu? Egia esateko, 1990eko hamarkadako esperientzia nekagarria kontuan hartuta, egingarriagoak ikusten ditut bi lehengo aukerak.

Teknologia berrien esparrutik irten gabe, Andoni Sagar-nak Euskaltzaindian eginiko sarrera hitzaldian esandakora joango gara. Bidenabar, Elhuyarren eta euskara mundu modernorako erabilgarri bihurtzeko lanetan sustraiak dituzten bi ingeniari egin dituzte batak bestearen segidan Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldiak. Mikel Zalbide izan zen aurrekoa. Lau dira euskaltzain oso ingeniariak. Zientzia naturale-takoen mentsa dugu, artean. Goazen, Sagarnaren hitzetara.

2007ko maiatzaren 1ean *Berria* egunkarian ederki islatuta agertu zen gai hau. Eusko Jaurlaritzak euskarazko itzultzaile automatikoa garatzeko prozesua abian jarri zuela eta, horren garapenean jardungo zuen enpresa hautatzeko lehiaketa publikoan parte hartuko zuten enpresetako adituei iritzia eskatzeko zitzaien.

Zalantzan jartzen zuten haiek euskarazko itzultzaile automatiko orokor batek eskain dezakeen zehaztasuna. Hogei urte arlo horretan diharduten aditu euskaldunek zioten gaur egun ez dela posible edozein testuren itzulpen zehatzak egiteko sistema bat lortzea, baina posible litzatekeela arlo jakinetarako, arlo horietako testu corpus handiak egongo balira.

Aditu horietako batek zioen Jaurlaritzak euskarazko itzultzaile automatikoa garatzeko abiatu duen prozesua, baliatu beharreko aukera polita dela, ez jostailu bat sortzeko, ez dagoen azpiegitura bat sortzeko baizik. Nire ustez erdiz erdi asmatu zuen esan zuenean azpiegitura eta sarea direla beharrezkoak une honetan, euskararen eta euskararentzako teknologiaren ikerketan dihardutenen arteko lankidetzari bilatu behar dela eta corpusak biltzeak eta lantzeak lehentasuna dutela. Ni ere bat nator iritzi horrekin.

Ni ere bat nator. Andoni euskararen erreferentziazko corpus baten beharraz ari zen, hizkuntza-teknologiak garatze-

ko eta hizkuntzaren beraren normalizaziorako, ezinbesteko tresna dena. Erreferentziazko corpusa berandu dabil jada. Adibidez, Euskaltzaindiak Hiztegi Batua osatzeko lanetan, dabilen euskararen erradiografia egingo zukeen baliabidea ez du eskura izan. EEBS eta Orotariko Hiztegia eskura ditu, jakina, baina horiek euskararen errealtatearen zati bat baino ez dute islatzen eta muga nabarmenak dituzte.

Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren ardura izan dutenek ez diote auziari behar bezalako kemenez heldu. Ez dute jakin izan egitasmoa bideratzen. Auzia ez da berria. Jada 8-9 urte dituen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian aipatzen zen corpusaren beharra. Gerora garatutako *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2001-2004* delakoak ere jasozuen. 2006an lantzen hasi zen PESI 2.0 izenekoan ere erreferentziazko corpusa aipatzen zen ekimen estrategikoen artean, eta 2008rako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuek ere jasoz egiten dute asmoa, azterketa-maila soilean baino ez. Nire iritziz, azterketa, analisi eta asmoetatik haratago joan beharra dago. Hizkuntza nagusiek ez dute lo hartu. Real Academia Española erakundeak, etsenplurako, CREA (Corpus de Referencia del Español Actual) lantzen dihardu 1997tik hona. Ea 2008 euskararen erreferentziazko corpusaren abiatzeko urtea den!

Zientzia eta teknologia planak aipatuta, Ibarretxe lehendakariak *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2007-2010* aurkeztu zuenean hizkuntzen teknologia izan zuen hizpide, hainbatetatik hainbatean. Ez da berri txarra. Dena dela, plan berria asko berandutu da, aurrekoak 2004an baitzuen horizontea. Urte hauetan guztietan berrikuntza asko gertatu dira EAEko zientzia eta teknologia sisteman: CICen sorrera eta zabalkundea, Ikerbasque abiatzea eta Saretek Innobasque bihurtzea eta izaera aldatzea besteak beste; gehiegi, akaso, planik gabe ibiltzeko. Plan berria egokia da, oro har, puntu ilun nagusi batekin nire irudiko: espalazio bidezko neutroi-iturriaren alde egiten den apustua, hain zuzen ere. Egia esan, ez dut makroazpiegitura zientifiko horren beharrik

ikusten, ez behintzat, zientzia-sistema indartu eta oinarri sendoak izan arte, azpiegituren zein pertsonen ikuspegitik. Ez naiz luzatuko hemen hori esateko ditudan arrazoietan, luze eta sakon azaldu baintuen duela hilabete batzuk (ikus «¿Qué política científica?», *Hika* 173, 2006ko urria), eta interesa duen irakurlea hara jo beza gonbidatzen dut.

Eta bukatzeko, propaganda apur bat. Izan ere, Elhuyarrek abenduan publikatuko du C.P. Snowen *Bi kulturak* saio sonatuari neronek egin diodan itzulpena. Zientziak XXI. mendeko sozietatearen kulturaren jokatu behar duen rolaz gogoeta egin dezagun balio dezala!¶



XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

2007. urtean aldaketa ugari izan ditugu Kontseiluan, geure lan-ildo guztietan egin ditugu aurrerako urratsak. Ohi bezala, egiten eta eragiten jarraitzen dugu. Hainbat ildotan lan egiten dugu komunikatibo, sozial zein politikoetan eta hainbat esparru jakinetan aritzen gara: lan-munduan, hezkuntzan, etorkinenean, administrazioetan... Lan horren fruituak dagoeneko jasotzen ari gara, eta euskaldun askoren ahaleginari esker aurrera goaz.

Kontseiluak eragin arlo zabala du, eremu guztietan eragin behar baitugu euskararen normalizazioaren alde. Halere, oraindik bidea dago ibiltzeko euskararen garapen osorako falta dena kontuan hartzen badugu. Euskaldunok gaur-gaurkoz ezin dugu nahi bezala geure burua adierazi eta zail gertatzen zaigu geure hizkuntzaren baitan eguneroko bizitza egitea.

Elkarlana oinarri lan-mundua euskalduntzeko

Horregatik, lan-mundua euskalduntzea estrategikoa da hizkuntza-normalizazioan. Bultzada eta ahalegin bereziaz gainera, lankidetzaren behar du euskarak esparru zabal horretan garapen osoa izan dezan.

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria gero eta gehiagorekin partekatzeko helburuarekin abiatu du Ziurtagiriaren Elkartaren sorrera. Bai Euskarari Ziurtagiriak zazpi urteko esperientzia metatu du. Prozesu dinamiko eta parte-hartzailerik izan du hasieratik, eta une honetan gaur egungo egoerara egokitzeko ahalegin berezia egin du, 1.500 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek Ziurtagiria eskuratu eta gero.

2006ko irailean iragarri zen elkarteak sortzeko asmoa, eta ordutik, aurreko egitura berrantolatu eta zabaltzeko hainbat lan burutu behar izan dira: harreman-plana egin, estatu-tuak landu, funtzionamendua finkatu, eta, azkenik, zuzendaritza bera osatu.

Ziurtagiriaren Elkarteak elkarlanean eta kalitatean urrats bat egin du eta proiektua hainbat eragilerekin partekatu du. Horrela bazkide diferentez osatutako elkarteak jarri da abian.

Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendaria Rober Gutiérrez da, Bai Euskarari Ziurtagiriarekin sorreratik beretik ari izan dena. Elkarteak sortzea prozesu parte-hartzaile baten ondorioa da, etengabeko hobekuntzan oinarritua, dinamikoa eta zazpi urteko esperientzia metatu duena Euskal Herri osoan.

«Elkarlanean eta kalitatean urrats bat» da Ziurtagiriaren Elkarteak abiatze-leloa. Ziurtagiriaren Elkartearen helburua enpresa, saltoki eta era guztietako entitateek euskararen normalizaziorako konpromisoak hartzea eta betetzea da.

Ziurtagiriaren Elkarteak hainbat bazkidek osatzen dute; horien artean hiru mota daude: bazkide babesleak, erabiltzaileak eta laguntzaileak. Bazkide babesleak Kontseilua osatzen duten kideak dira. Bazkide erabiltzaileak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu eta erabiltzen duten entitateak dira; une honetan, 1.500 entitate. Azkenik, bazkide laguntzaileen multzoan ziurtagiriaren sustapenean elkarlanean aritu nahi duen edozein entitate izan daiteke, esate baterako: sindikatuak, enpresa eta kooperatiba-elkarteak, finantza-entitateak, garapen-agentziak, merkataritza-ganberak, administrazioak...

Ziurtagiriaren Elkartearekin batera irudi berria aurkeztu da. Bai Euskarari Ziurtagiria kalitatean oinarritutako proiektua da eta filosofia horri eutsi dio irudi berriak, euskararen normalizazioan eragiteko neurriak garatzen ari direnak kalitate-konpromisoaren jabe direla ziurtatzen baitu. Irudi erakargarri eta eguneratua da.

Arrakasta ugari opa dizkiogu Ziurtagiriaren Elkarte berriari datozen urteetan.

Hizkuntza-politika udalerrietan eta administrazioetan

Hizkuntza-politika eraginkorra ezinbestekoa da eta Kontseiluak aspalditik aldarrikatzen du behin eta berriro hizkuntza-politika horren beharra, euskara ez baita norberak bakarrik bultzatu behar duen zerbait; erakundeen inplikazioa behar-beharrezkoa da, gure hizkuntza-eskubideak bermatzeko bidea egitea dagokielarik.

2007an, Kontseiluak Euskal Herriko 66 udalerriren hizkuntza-politika neurtu zuen. Herri bakoitzaren egoera aztertu genuen eta termometro batean herri bakoitzaren balioespina egin zen. Emaitza ez da ona izan eta Euskal Herriko udalerrietan hizkuntza-politika berria behar dugu gaurko egoera hau gainditzeko. Neurketaren helburua abiapuntua ezartzea izan da, non gauden dakigularik, eta hutsak ezagutzen ditugularik, konponbidea aurkitzeko urratsak egin daitezten. Udalerrietan egiten den hizkuntza-politikan eragiteko tresna zuzena eta egokia da neurketa. Orain, haien ahalegina beharko da, elkarrekin lan eginez pixkanaka puntuazioak hobetzeko.

Bestalde, EAEko administrazioaren euskalduntzea egoera tamalgarrian dago. Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorra euskalduntzeko III. plangintzaldiaren balorazioaren aurrerapena aztertu du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. Administrazioaren euskalduntzearekin kezkatuta agertu da Kontseilua, 25 urte pasatu ostean euskalduntze sistemak huts egiten duelako ‘leku guztietatik’:

- Euskara ez dakiten langileak kontratatzen jarraitzen dute eta horiek gero euskaldundu egin beharko dira; baina salbuesteko adinera iristen badira, euskaldundu gabe geratuko dira.
- Salbuestitakoak langile taldearen %80 dira, 45 urtetik gorakoak salbuestita baitaude.
- Lehen hizkuntza-eskakizuna eskuratzen dutenek ikasi dutena galdu egiten dute, ez baitira euskarazko lan-zirkuituetan integratzen.

- Euskaldundu beharreko lan-atalak ez dira euskalduntzen, eta ondorioz, ezinezkoa da euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzea.
- Arduradun politikoen artean ere euskararen ezagutza ez da erdia besterik, eta ez dakitenek ez dute ikasteko konpromisorik hartzen.
- Goi-karguak salbuetsita daude eta haiei dagokie prozesua lideratzea.
- Derrigortasun data duten lanpostuak %40 dira bakarrik, eta horien erdia soilik dago dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenen eskuetan.
- Erabilera irizpideak, kasu gehienetan, ezarri gabe daude, barrura begira, eta ezarrita daudenen kasuan ez dira ezagutzen edo erabiltzen.

Kontseiluaren ustez, ezinbestekoa da hutsune horiek betetzea euskararen normalizazioan aurrera egiteko. Oso garrantzitsua da administrazioaren euskalduntzea lortzea hizkuntzaren garapenerako; administrazioak aurretik joan behar du jarraibidea eskainiz eta herritar guztion hizkuntza-eskubideak bermatuz.

Administrazio guztiek izan behar dute Plana indarrean eta, gainera, jarraipen estua egin behar zaie, Kontseiluaren iritziz. «Normalizazio-prozesuaren mende-laurdena igaro dugun honetan administrazioen erdiak bakarrik erabilera-plana izatea onartezina da».

Era berean, arkitektura juridiko egoki eta dinamikoa behar dela azaldu du. «Gaur egun administrazioaren euskalduntzea arautzen duen corpus juridikoak hutsune nabarmenak ditu funtsezkoak diren gaietan».

Bestetik, aurreko plangintzaldiaren balorazioa egin zue-nean bezala, Kontseiluak derrigortasun-indizeak ez direla zuzen kalkulatu gogorarazi du. Derrigortasun-indizeak 1996ko biztanleriaren erroldak emandako emaitzen arabera finkatu dira, %40,7 oinarritzat hartuta, eta ez 2001ekoak emandakoen arabera, eta hori kontuan hartzen bada, %44 izan beharko luke.

Halaber, salbuespenei buruz mintzatu dira Kontseiluko bozeramaileak. 45 urte baino gehiagoko langileak salbuetsita daude legez, hau da, ez dute hizkuntza eskakizuna bete behar.

Izan ere, epe zehatzak dituen hizkuntza-politika behar dugula azaldu du Kontseiluak. Orain arte Eusko Jaurlaritzatik aplikatu den politikaren ezaugarrietako bat eperik eza da, eta horrek ebaluaezin bihurtzen du prozesua.

Bestalde, Osakidetzaren eta Ertzaintzaren euskalduntzea plangintza horretatik kanpo dago eta horren berririk ez dago: ez zenbat gastatzen den eta ez zenbat aurreratzen den.

Kontseiluaren ustez honako neurri hauek hartu beharko lirateke, besteak beste, IV. Plangintzaldiari begira, orain arteko egoera irauli nahi bada:

- Administrazio guztiek izan behar dute erabilera plana.
- Erabilera plan orok guztiek bete beharreko gutxieneko batzuk izan behar ditu.
- Kontratutako diren langileek bi hizkuntza ofizialak eza-gutu behar dituzte.
- Euskalduntutako edo euskalduna den langileak euskaraz lan egingo du euskarazko zirkuituan.
- Lanpostu guztiek izango dute derrigortasun data.
- Ezingo da salbuetsi inoiz langileriaren ehuneko txiki bat besterik eta oso pisuzko arrazoiengatik bakarrik.
- Epe zehatzak izango dituzte plangintzek, eta parametro soziolinguistikoen arabera ezarritakoak.
- Administrazioaren euskalduntzeari eragiten dioten arau juridikoak aztertu eta egokitu behar dira eraginkortasuna handituz, epe zehatzak ezarriz eta baliabideak esleituz.
- Euskarazko zerbitzua eta lana bermatzen duten hizkuntza-eskakizunak bakarrik aintzat hartzea.
- Administrazioa euskalduntzeko plan orokorrak administrazioa noiz euskaldunduko den aurreikusi behar du.
- Helburu orokor eta espezifiko lorgarriak izango dituzte planek.
- Gizarte-eragileekin estuki koordinatutako planak izango dira, maiz eta garden ebaluatua.

- Ebaluazioak erakunde independente batek egingo ditu eta egoera zertifikatu alor sozio-ekonomiko pribatuan Kontseiluak egiten duen bezala.
- Administrazio guztietako lan-atal guztiek egon beharko dute planen eraginpean, eta arduradun politikoak eta goi-karguak izango dira lehen mailako erantzuleak.
- Goi-karguak eta arduradun politikoak ez dira ezein kasutan salbuetsita egongo eta epe zehatz bat izango dute euskara ikasteko.

Belaunaldi berriak euskaldundu

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua osatzen duten bazkide guztiek eskatu dute aurten irakastereduen erreforma, eta hori dela eta honako adierazpena plazaratu da:

1. Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik funtsezkoa da belaunaldi berriak erabat euskalduntzea. Zeregin horretan Hezkuntza Sistemak berebiziko ahalegina egin behar du euskararentzat guztiz lorgarria den B2 europar helburua ikasle guztiek berengana dezaten, eta ahalegin hori Euskal Herriko geografia zatitzen duten gune administratibo guztietan egin behar da, gainera.

2. EA Eren kasuan, erreforma-aukerak bertan ditugula, itxaropen eta ilusio handiarekin ari gara bizitzen gizarte-erabatanda; baita arduraz ere, izan ere erreforma oinarri egokien gainean egiten ez bada, euskararen normalizazioa bera kolokan jar baitaiteke.

3. Beraz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak plazaratutako proposamenak euskararen normalizazioan oinarri on bat jar lezake. Horretarako, honako zehaztapen hauek behar dituela uste dugu:

- Hezkuntza Sistemak aurrera eramane behar duen euskalduntzea gorabehera politikoetatik babesteko corpus juridiko zehatza eraiki behar da, gaur egungoa aldatuz. Corpusak epe eta helburu zehatzak eskaini behar ditu, saihestu ezinekoak eta bete beharrekoak direnak. Era

- berean, erreformak beharrezko dituen mota guztietako baliabide ugariak aldeztu aurretik zehaztu behar dira.
- Ikastetxe guztiek batera hasi behar dute erreformarantz pausoak ematen eta 10 urteko gehienezko epean ikasle den-denek erreformaren barruan egon behar dute.
 - Unibertsitate eta Lanbide Heziketaren eskaintza osorik euskaldundu behar da epe labur eta zehatz baten barruan. Era berean, Irakasle Eskolak euskaraz lan egingo du, ez baita zentzuzkoa euskara ez dakiten langileak prestatzea, Sistemak lekurik izango ez dutenez gero.
 - Euskara izango da irakas- eta administrazio-hizkuntza eta, oro har, Hezkuntza Sistemaren lan-hizkuntza. Atzerriko hizkuntzaren kasuan, etorkinek berez dakarten hori kontuan hartuko da haien deserrotzea eragozteko.
 - Hezkuntza Sistemak kontratatuko duen profesional oro, irakasle izan zein ez, euskalduna izango da. Gainerakoei dagokienez, erreforma ezartzeko denbora tartean euskaldundu beharko dute eta hori bete ezean sektoreko sindikatuekin adostuko da langile horientzako irtenbidea. Hizkuntza-laguntzaileak eta hizkuntza-normalizazio teknikariak ugalduko dira eta langileen arteko behin-behinekotasun indizeak txikitu egingo dira.
 - Ikastetxeek laguntza eraginkorrek jasoko dituzte erreformaren helburuak egoki lantzeko lehen momentutik. Laguntzen artean, besteak beste, irakasleen prestakuntza didaktikoa, taldearen zatiketa, ratioaren jaitziera, irakasle laguntzaileen gehitzea etab. daude.
 - Urteroko ebaluazio zorrotzen bitartez ezagutuko da erreformaren bilakaera. Ez-gainditze sistematikoak administrazioaren esku-sartzea eskatuko du, gertuko jarraipenaren bidez ez-gainditze horren zergatien azterketa egin eta hobekuntza planen diseinua kudeatzeko. Plan honen baitan zehaztuko da beharrezko laguntza gehigarrien eskaintza.
 - Hezkuntza Sistemak euskaldun osoak gizarteratze aldera, hizkuntzaren irakaskuntza formalaz haratago, euskal

kulturaren berezko aspektuei ere erreferentzia egin beharko zaie ikastetxeko hizkuntza-proiektua definitzeko momentuan; beraz, Euskal Herriak bere Curriculum propioa behar du.

4. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak beharrezkotzat jotzen ditu zehaztapen hauek irakastereduen erreforma eraginkorra izan dadin, eta dei egiten die instituzioei, alderdi politikoei eta gizarte-eragileei indarrak batzera eta euskararen normalizazioa ekarriko diguten neurri ausartak elkarrekin bultza ditzagun inora ez garamatzaten saihebidetako faltsuak ekiditera.

Azkenik, Hezkuntza Sistemaren ahalegina hizkuntza-politika berri baten testuinguruan kokatu behar da, eraginkorra izango bada, eta horretarako:

a) Estatusari dagokionez, euskarari ofizialtasuna, lehenetsua, berezkotasuna eta ezagutu beharra aitortu behar zaizkio.

b) Politika horrek honako ezaugarriak behar ditu: Toki Administrazioetik Administrazio Nagusirainokoa izatea, sektoreartekoa eta sailartekoa, helburu eta epe zehatzak dituen, baliabidez ongi hornitua, norbanakoak eta guneak euskalduntzeari begirakoa, hizkuntza eskubideen bermea eskainiko duena, Euskal Herri osoan aplikatzeko modukoa, ikuspegi osoa duena, instituzioekin eta gizarte eragileekin egoki koordinatua, erabilera sozial normalizatua helburu duena.

Kontseiluak 10 urte

Abenduaren 6an beteko dira hamar urte Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua Durangon sortu zela. Aurrena ‘Euskararen Unibertsoa’ izeneko mugimendua abiarazi eta Donostiako Costa Vasca Hoteleko Jardunaldiak egin ziren; eta, ondoren, ‘Bai Euskarari’ kanpainarekin Kontseiluak Euskal Herriko bost futbol-estadio bete zituen, Plan Estrategiko bat burutzeko lehen urratsak eginez. Orduan hartutako indar eta bultzadarekin lanean ari izan da Kontseilua. Euskararen normalizazioan aurrera egiteko guztion inda-

rrak elkartu beharra zegoelako konbikzioarekin sortu zen Kontseilua, hausnarketa prozesu baten ostean, euskalgintzako 50 bat erakundez osatua. Eta konbikzio berarekin jarraitzen dugu egunero lanean. Horregatik, hamar urte horietan egindakoa gogoratuko dugu urteurrenaren ospakizunean, eta proiektu bakoitzaren hasieraren eta bilakaeraren inguruko hausnarketa egingo dugu.

Kontseilua esker onez beterik agertzen da laguntzaile eta lankide izan dituen guztienganako, orduan ereindako hazia zuhaitz bihurtu delako eta horren itzalpean euskaldun asko euskararen normalizazioaren alde eguneroko lanean ari garelako.¶



XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

Nekea edo

Badut nik lankide ohi bat, bere zaletasunetarako astia izatearren enpresa utzi zuena baina, aspertzeko denbora ere sobran eta, tarteka bisitan etortzen zaiguna, lagunartearen beroaren bila. Garai batean gure bazkalorduetako solasgaia zein zen gogoan, azken bisitaldi horietako batean bota digu lagunak: «Eta, beti bezala politikaz eztabaidan-eta ibiliko zarete, ezta?». Besteok elkarri begiratu, eta aho batez atera zitzaigun denoi: «Aspaldian, aipatu ere ez».

Gure lantokian ez ezik, sumatzen dut gizartean oro har, eta euskaltzaleon artean zeresanik ez, nabarmen jaitsi dela politikaz hitz egiteko gogoia. Ez dut esango politikarekiko interesa gutxitu denik: sarritan, eta gure komunitate honetan froga lazgarriak ditugu begi-bistan, zuk batere interesik ez eta bat-batean irentsi egiten zaitu politikak, ustekabeko atzaparkada batez. Nolabaiteko interesa eta kezka hor dago beraz (edo arbuioa eta nazka, askoren artean); galdurik dagoena, beraz, ilusioa da, pilpira, gauzak aldatuko diren esperantza, eztabaidaren bitartez inor konbentzitzeko itxaropena, hitzak eta solasak ezertarako balio ote duten ustea bera.

Ez da su-etenaren amaiera bakarrik, baina hori ere bai. Egoera berriak kultur arloan dituen ondorioak hizpide hartu beharko nituzke baina, zer nahi duzue esatea, halako neke bat sumatzen dut, asperdura antzeko bat, eta, horrenbestez, lankideon arteko kafe-ordu edo bazkalondoetan egiten dugun moduan, alde batera utziko ditut eztabaida politikoak.

30: UZEI, Bilintx

Ez dakit ni ere zahartzen ari naizelako ote den, baina aspaldi honetan urteurrenak bete eta bete gabiltzan irudipena daukat, edo ospatu eta ospatu zehatzago esanda, norberak gogorarazi ezean ez baita lagunik etortzen atzetik belarritik tiraka, muxua ahoan edo oparia eskuan.

UZEI dugu urteak bete dituztenetako bat, 30 hain zuzen, urteurren hori aski apal pasatu bada ere. Baikortasunez hartu genezake apaltasun hori, garai bateko polemikak igaro ziren seinale, bere zeregina bideratua eta profesionalizatua dagoelako-edo. Hala ere, beste erakunde batzuek hartu duten garapenaren aldean, UZEI itzalixe geratu ote den ematen du, kanpotik bederen.

30 urte bete dituen beste bat, Bilintx liburu-denda, oraingo elkar megadenden sarearen aitzindari izandakoa. Hone-taz ezin esan lehenaren gurtzan bertan-goxo geratu denik, baina ezta geroa bideratua eta ziurtatua duenik ere. Aisial-diko ohituen aldaketa dela, kanpoko talde handien etorrera dela, negozio arriskutsua bihurtu da liburuak saltzea, etekin zail eta txikia duena. Diskoak saltzea, berriz, ekintza herroikoa dugu honezkero, eta bere jarduera horretan oinarriturik duenak oinen azpian dauka amildegia eta hondamendia. Eta, halaz guztiz, behar-beharrezkoa dugu euskal produktuen banaketa eta presentzia duina ziurtatuko duen sare komertzial sendoa.

25: Euskadi Irratia, Euskararen Legea

Hots gehiago atera dute, batetik, Euskadi Irratiaren eta, bestetik, Euskararen Legearen 25. urteurrenek. Lehenaren kasuan, isilik gelditu direnak ere izango ziren baina, ahoa zabaldu duten guztiek *Zorionak zuri* kantatzeko egin dute, eta nik ere bat egingo dut poz horrekin eta kantu horrekin. Euskadi Irratiaren lan txukuna zalantzan jarri gabe, luze eta zabal hitz egin genezake hedabideetan oro har (idatzizko, ikus-entzu-

nezko zein digitaletan) gure hizkuntzak duen tokiaz eta izan behar lukeenaz, baina hemendik kanpo geratzen den eztabaida da hori. Eta eztabaida baino gehiago, praxia behar duen arloa, bai sortzaile bai hartzaile garen aldetik.

Eta zer esan Euskararen Legeaz? Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legea dela zehaztu behar, askotan, utzikeria zabarrez edo ahaztura harroz, Euskal Herri osoa Ibarretxeren pean balego bezala airtzen baitira (baikara?) batzuk, edo hiru probintziotatik kanpo beste Euskal Herririk ez balego bezala.

Mendebaldeko mendebaldekoegi jokutzen dugun edo ez dugun, ez naiz auzi horretan sartuko (saltsa loditzeko gogo gutxi gaur, ikusten duzuenez). Baina euskal herritar eta euskaldun gehienak lurralde horretan bizi garenez, aipatu beharreko deritzot kontu honi. Iritzi ugari plazaratu da, baina gehienbat politikaz edo herrigintzaz alde aurretik eginak ditugun juzgu, aukera eta iritzietatik eratorriak. Espainian diktaduratik monarkia parlamentarioarako trantsizioa egin zen bezala egitea onartzen edo besterik ezean ontzat ematen dutenek legearen alde onak azpimarratu dituzte eta urteotan zenbat aurreratu dugun gogorarazi, hobetu litezkeenak ere badirela ukatu gabe. Erreformaren kontra jarri zirenek edo haien ondorengo eta gogaideek, berriz, mugak eta eskasiak seinatzen dituzte, aurrerapenak ere izan direla ukatu gabe.

Botila erdi huts edo erdi betearen ohiko ipuina? Hori baltiz, gaitz erdi. Eztabaida razionala antzutzen duen betiko sorgin gurpilaren adibide paradigmaticoa dugu hor, niri axola zaidana ez baita orain 30 urte egin zena ondo ala txarto egin zen, historiaren dominak eta txatarrak nola banatzen ditugun, baizik eta orain, gaur, bihar, zer egin behar genukeen. Zein diren hartu beharreko bideak eta neurriak euskarak aurrera egingo badu.

Gerorako perspektibak direla-eta, bi ohar. Bata, behin baino gehiagotan esan izan den legez, baikorkeria bezain kaltegarria dugula ezkorkeria: gauzak bide onetik doazelakoan lasai etzatea edo dena galdua dagoelakoan etsitzea, elkarren

pareko jarrerak ditugu; itzalak bezain ugari dira argiak egoe-ra honetan, eta hizkuntz normalizazioa bezala desagertzea ere aukeren artean ikusten ditut nik behintzat.

Bigarren oharra, aurrekoari lotua: etorkizuna pertsonok erabakiko dugu, ez patuak, ez Nazio Batuek. Dudarik gabe, herri burujabe baten ahalak eta baliabideak eskuan izatea guztiz inportantea izango da, baina hori bera ere ez litzateke aski, eta egungo tresnekin ere ez da gutxi egin litekeena, edo egin gabe utz litekeena: Jaurларitzen, euskararen gaian beti alderdi berak aginduta ere, ezagutu ditugu arduradun guztiz euskaltzale eta borondatetsuak baina ideia garbirik ez zutenak, euskarak gobernu hartan izan duen arerio amorratue-na, irizpide serioak ezarri baina nahi bezainbat botere ez zeukatenak, administrazioan zer egin ez zekien gizon jatorren bat, edo ideiaz eta ekintzaz gainezka dabilenik (izenak jartzea, zeuen esku: esana dizuet gaur ez nabilela istilu bila).

20: Atrebentzia ez bada...

Urteurren biribilez pentsatzen jarrita, nik neuk 20 beteko ditut aurki editore lanetan. Ez kezkatu ordea: ez dut neure buruaz hitz egin behar. Literaturgintzaren urteotako ibilbidea ondo samar ezagutzeak ematen didan talaiatik, gizonez-kook ia inoiz aipatzen ez dugun kontu bat ekarriko dut le-rootara, atrebentzia ez bada: euskal emakume idazleak. (Gizasemeok joera dugu gaia baztertzeo, literatura sexuen arabera epaitu behar ez delakoan, eta emakume batzuek erantzun ohi dute ez ikusiarena egitea egon dagoen diskriminazio-egoera iraunarazteko bidea besterik ez dela; behin-goz bada ere, neure iritzia emango dut beraz, mutur-sartze-tzat hartuko ez zaidan esperantzan.)

Eta gai hau hartu dut, hain zuzen, euskal literaturako azken urteotako berririk inportanteena, plazaratzen ari diren emakumezko idazleen kopurua, kalitatea eta jarraikortasuna dela iruditzen zaidalako. Ikuspegi diakronikoa erabilita, 40 urte badira Urretabizkaia eta Lasa beren sorkuntzak kaleratzen

hasi zirela; dozena bat urte itxaron behar izan zen, ordea, emakumezko gehiago plazaratzeko: Irastortza, Landa, Borda, Mintegi; eta beste dozena bat, haiei segida emango zietenak ezagutzeko: Iturbe, Meabe, Iturbide, Arkotxa, Arrieta... Barka nazatela ahantzi ditudanek; esan nahi nuen hutsune handiak izan direla, gizonkrazia hutsezko urte-parrasta, eta, bestalde, idazle horietako gehienek ez dutela obra oparoa sortzerik izan, direnak direla horretarako arrazoiak eta faktoreak.

Azken urteotan, berriz, indarrez plazaratu diren emakumezko idazleak zenbatzen hasi eta bi eskuetako hatz guztiak erabili behar ditut; horietako gehienak, bestalde, maiztasun dextentekoarekin ari dira beren lanak argitaratzen; eta inportanteena: oso lan onak daude horien artean. Ez naiz paternalismoz ari: aurten fikzioan irakurri ditudan bi liburu kilikagarrienak emakumezkoek idatziak dira, nire ustez (eta orain ere ez dut izenik emango).

10: Guggenheim

Hona beste urteurren sonatu bat, Puppyren etxola titaniozkoak 10 urte bete baititu. Honi buruzko balorazioetan ere zerikusi zuzena izan ohi du norberaren kokaleku politikoak, edo orain 10 urte hartutako jarrera zuritu nahiak. Dena dela, eta gaia sakon ezagutu gabe, neure uste harroak botatzera ausartuko naiz.

Hasteko, ezin da ukatu Guggenheim Bilbao Museoa arrakasta izan duela. Bultzatu zutenek jarritako helburuak bete eta gainditu egin ditu, haiek poz-pezik daude, eta kritikotasunari heltzen diotenek «bai baina»ka jardutera beharturik ikusi dute beren burua.

Arrakasta hori, bistan da, fenomeno turistikoa edo ekonomikoa da beste ezer baino gehiago. Ez du ematen euskal herritarrok arte garaikidearekiko ezagutza edo estimazio askoz gehiago dugunik, eta honetan oinarritzen dira kritikoak. «Eta zer?» erantzungo zaie beste aldetik seguru asko. Nolanahi dela, berez kulturala den zerbait ekonomiaren motor

bilakatzea eta harekin uztartzea (horrek dakartzan morrontzei buruz edozein iritzi dugula ere) datu berria da gure artean, aurrerantzean kontuan hartu beharko dena.

Ekonomiarekiko lotura hori dela-eta, gogoan dut museoaren proiektua plazaratu zen garaian euskal kulturaren zebil-tzan talde eta mugimenduentzako dirulaguntzak nabarmen gutxitu zirela, eta Guggenheim eraiki beharra eman zitzaie-la horretarako arrazoitzat (jende asko haren kontra jartzeko arrazoia horixe izan zen). Oraintsu, berriz, honetaz eztabai-datzen ari ziren foro batean, gobernutik hurbil zegoen batek bota zuen museoaren aurrekontuak ez zirela kulturako di-ru-partidetatik atera, askoz handiagoak zirelako, eta gauza batek ez zuela zerikusirik bestearekin; hori horrela bada, kulturgintzako agenteak eskale izatera kondenatzea norbai-tek nahita eta berariaz hartutako erabakia izan zela ondo-rioztatu behar. Pertsona bati leporatu beharko diogu errua? Alderdi bati? Sistemaren aldeko guztiei? Ez dakit zer den hobe, baina esana dut gaur ez dudala politikaz jardun nahi.¶



LAURA MINTEGI

Guggenheimen lehenengo hamar urteak

Ez, ez ginen erratu. Orain hamar urte bete-betean asmatu genuen esan genuenean Guggenheimek ez ziola ekarpen handirik egingo euskal kulturgintzari. Areago, bertako kulturgintzaren ispilu lana bete ez duen heinean, estaldura bat gehiago, geruza bat gehiago jarri dio bertako ekoizpenari, ikusezina bihurtzeraino. Guggenheim ez da kokatuta dagoen herriaren erakusleihoa, eta museoaren arduradunek argiki aitortzen dute aukera duten bakoitzean, meridianoki. Sortu eta hamar urte beranduago bere xedea ez da, eta inoiz ez da izan, hartu duen herriaren oihartzuna izatea.

Ezin uka, ordea, Guggenheimek ekarpena egin duenik. *Guggenheim efektua* begi bistakoa da Bilbon, eta orain hamar urte ez genuen igarri efektu hori hainbestekoa izan zitekeenik. Hiria aldarazi egin du, ez soilik arkitekturaren ikuspuntutik, baizik eta ikuspuntu ekonomiko eta turistiko-tik ere. Hiriago da Bilbo hamar urtetik hona. Hiri europar askoren estandarretan sartzen ari da, batez ere irudiari, garrarioari eta zerbitzuei dagokiela. Estandarizazioa, aitzitik, ez da berri positiboa berez; Bilboko erdigunearen eta bazterreko auzuneen arteko alde areagotu egin da, bigarren sektoreko ekoizpena —Bilbori nortasuna eta baliabide ekonomikoak tradizionalki eman dizkiona— ia errotik desagertu da eta hirugarren sektoreak gora egin du nabarmen. Baina hirugarren sektorea ahulena izaten da garaian garaiko gorabehera ekonomikoetarako dagokiela.

Euskal kulturari museoak egin dion ekarpena hutsaren hurrengo da. Hamar urte hauetan 100dik gora erakusketa an-

tolatu ditu eta soilik bost eskaini zaizkie sortzaile autoktonoei. Guggenheim Museoa, euskalgintzan jarduten dugunon ikusmiratik, perretxiko handia da, distiratsua eta ikusgarria, baina perretxikoa azken finean, edonon koka zitekeena. Eta estetika aldetik, berdin-berdin balio du arte garaikidea era-kusteko edo ardo errioxarraren bodega gordetzeko. Arte garaikidearen *meca* izan daitekeen bezalaxe, ardozaleen *meca* ere izan daiteke: edukiontzia baloratzan da, edukia zein den gorabehera. Guggenheimen albo-alboan dagoen Arte Ederretako Museoak erakusketa on-onak eskaintzen ditu —hurkoarenak baino hobekak sarri askotan— eta ez du eskatzen hainbesteko inbertsio ekonomikorik, euskal kulturgintza hamar urte hauetan hipotekatzera eraman duenik.

Oteiza eta Txillida aurrez aurre

Biek utzi gaituzte, Oteizak 2003ko apirilean eta Txillidak urtebete lehenago, 2002ko abuztuan, baina beren lanen eta nortasunen itzala luzea da. Aurtengo irailean ospatu da, bolandera eta guzti, Haizearen Orraziaren 30garren urteurrena. 1977an ezarri zen Donostian, eta garaian inauguraziorik egin ez zenez, 2007an burutu dute ospakizuna. Bestaldia hiru egunekoa izan da eta erakundeen aldetik egundoko babesa jaso du.

Ifrentzuan, Jorge Oteiza Ikerketa-Beka dugu; ikerketarako diru-laguntza urtero eman arren, prentsak ia ez du islatzen ekimena. Oteizaren gainean hitz egiten denean liskarren baten berri emateko izaten da: Fundazioaren inguruan izaten diren gorabeherak edo Museoaren inguruko arazoren bat, *Oteiza* eta *polemika* hitz beraren bi aldaera ezberdinak balira bezala. Oteiza polemikari lotzearena intentzioduna izan ala ez, kontua da oharkabean pasatzen ari dela isileko lana, bere oinordeko espiritualek jaso eta apal-apal burutzen duten lana.

Bizirik zeudela bi eskulturagileek mantendu zuten ika-mika —1997ko besarkada teatralak ez zuen ezabatu mamian

zegoen ezinulertua— ez zen soilik izan bi gizabanakoren arteko liskar domestikoa. Eskulturagintzaren eta, areago, artelanaren zentzua irudikatzeko bi modu ezberdinen eta kontrajarrien ordezkariak ziren. Artearekiko eta munduarekiko bi kosmogonia bateraezinen erakusgarri izan ziren eta bi kontzepziook ez ziren amaitu eskultoreen heriotzarekin.

Aitortu behar dut apur bat galduta ibili nintzela Txillidaren eta Oteizaren arteko liskar hura zela-eta, norbaitek azaldu zidan arte zertan zetzan mamia. Azalpen zuzena edo okerra denetz ez dakit eta, egia esateko, ez du axola, baliagarria bailitzateke ez-zuzena balitz ere. Pertsona horrek zioen (ezin gogoratu nor zen!) Oteizak jardun zuela eskulturagintzan berak nahi zuen hura ondo adieraztea lortu zuen arte. Pentsatu zuenean azkenean lortu zuela egitea buruan zuen hura, hau da, *ikasi* egin zuenean nola egin berak egin nahi zuen eskultura, orduan ez zion interesik ikusi gauza bera behin eta berriz errepikatzeari. Amaitu zitzaion interesa. Eta, izatez, eskulturak egiteari utzi zion 60ko hamarkadan, hil baino berrogei urte lehenago.

Ezagun horren arabera, Txillidak ez zuen bide bera hartu. Eskultura nola egin *ikasi* zuenean, orduan ikaspen hura komertzializatzeari ekin zion, etenik gabe. Behin asmatu bidea, bide hura ibiltzeari ekin zion, bidean gora eta behera.

Ziur naiz faktore gehiago dagoela bataren eta bestearen erabakietan. Eragin zuzena ere izango zuten Itziar Carreñok eta Pilar Belzuncek, biak ala biak oso pertsona garrantzitsuak izan baitziren eskulturagileen bizitzetan. Edonola pentsatu nahi nuke Oteizaren eta Txillidaren artekoarena ez zela izan ez etxeko giroaren eragina ezta erakundeekiko jarraia adeitsua ala kritikoa ere. Interesgarriagoa iruditzen zait pentsatzea urrundu zituena izan zela artearekiko ikusmira, sormenarekiko jokaera, nolako kosmogonia zuten euskal unibertsoarekiko; eta nork bere ideiarekin koherente jokatzeak eraman zituela alde batera edo bestera. Alde jendetsu eta txalotura, edo alde bakartu eta isilera.

Irakurlerik gabeko literatura

PISA txostenak eman dituen azken datuak ez dira pozaren pozez saltoka hasteko modukoak. Jakin bagenekienaren ha- maikagarren baieztapena izan da. Liburuak erosi, gutxi erosten dira, eta irakurri are eta gutxiago. Eta irakurriak direnean, gainera, ez dira ulertuak izaten. Analfabeto letratuak ez dira bakanak, legioa baizik.

Gure artean aspaldidanikoa da irakurleen gaineko ardura. *Sautrela*-ren 200. telesaiio berezian mahaikide batek zioen moduan, euskal literatura munduan bakarrenetarikoa izan daiteke osasuntsu egonik irakurlerik ez daukana.

Enfin, ez da gehiegikeriarik esan behar. Nik uste dut orain baino gehiago inoiz ez dela irakurri izan. Irakurri egiten da, baina beste formatu batean, beste helburu batzuekin eta beste erritmoaren eta kadentziaren arabera. Baina irakurri irakurtzen da, etengabe. Eta idatzi ere bai. Kontua da nola, zertarako. Kontua da eskaera mota berriak egonik, eskaintza zaharra ematen dugula. Kontua da guk nahi dugun neurri eta doinuan irakurtzera behartzen ditugula gazteak. Kontua da trantsizio garaian gaudela eta ez dugula asmatu liburuaren xarma agerian jartzen estimulu berriak biderkatu diren garaian. Kontua da ez garela ohartu eskaintza ez datorrela bat eskaerarekin. Kontua da, gutariko askok liburuaren bidez deskubritu genituela geografia berriak eta mundu afektiboak, Emilio Salgari, Gustave Flaubert eta Joseph Conrad-en eskutik, baina egun badaudela beste baliabide batzuk geografia berriak eta unibertso afektiboak deskubritzeko; irudi biziak dituzte eta koloretan daude.

Ez dut uste idazleok SMS formatuan idazten hasi behar dugunik, noski. Baina garai berriak espresio bide berriak eskatzen ditu. Ulertzen dut editoreak arduratuta egotea, baina idazle naizen aldetik ez nago oso kezkatuta. Ziur naiz liburu batzuek lortzen dutela irakurlearenganainoko bidea egitea. Garaiaren ardurak, jakin-mina, egonezina, esperantza, sintonia, tonua, indarra edo atonia islatzen lortuko duen li-

burua irakurria izango da, paperean edo zatika pantailan, kanta baten doinuaren bidez edo esaldika grafitietan. Bere garaiaren antena sentibera den idazleak asmatuko du adierazten irakurleek irakurri nahi duten hori: letra ipiniko dio irakurleak barnean entzuten duen soinuari.

Euskadi Sariak utikan edo hemendikan

Abokatua aurrean egon ezean gaiaz mintzatuko ez nintze-la nire buruari zin egin banion ere, zina apurtu eta iritzia azalduko dut, datorrena datorrela.

Garaipen pirrikoa esan ordez *porrot pirrikoa* esan bagenez, honela definituko nuke «Euskadi Sariak Utikan» ekimenaren afera. Hau da, lehen balorazio batean ekimenak porrot egin zuen arren, baliteke etekinik ematea luzera. Begi bistako da 29 idazle eta itzultzaileek ekimena atera zutenean ez zutela arrakastarik izan profesio-kideen artean. Hasierako 29 kideei bakarrik beste 8 batu zitzaizkien, eta denok daki-gu askoz ere idazle eta itzultzaile gehiago direla oso kritikoa Euskadi Sariekin. Atxikimendu gehiago egon ez bazen, ez zen izan idazleak kokildu zirelako, baizik eta manifestua bera eta berau bideratzeko prozesu osoa zakarra, sektarioa eta gutarrismoak jota izan zirelako. Bestalde, manifestuaren sinatzaileen oso-oso ingurukoa saritua izateak, eta sariari uko ez egiteak ere, ez dio lagundu ekimenari.

Horrela egin ezean ez zela egingo? Baliteke. Edo ez. Lan eta denbora dezente gehiago eskatuko zuela? Hori segurua da. Bai, ziur naiz zortzi ez, hamazortzi edo berrogeita zortzi gehiagok emango ziotela babesari ekimenari.

Helburua ez zela ekimen masiboa izatea? Baliteke. Edo ez. Hainbat idazleri eskatu ziguten sinadura.

Xedea lortu dela eta ekimena justifikaturik dagoela? Baliteke. Baliteke aldaketa batzuk eragitea (Miren Azkaratek zerbait aipatu zuen sari banaketaren egunean) baina sumindura eragin zuen idazle askorengan, zalantza eta mesfidantza. Agian hori bilatzen zen, marra ezartzea gure eta gai-

nontzekoen artean. Agian etxearen marka da, taldekideen labela. Nork jakin.

Horregatik ez zuten sinatu idazle askok, nahiz eta ados egon Euskadi Sariak kritikatzearekin. Lan eta denbora eta empatia gehiago har zitezkeen, eta iritziak batzeko eta kontuan hartzeko prestu egon ekimen kolektiboa burutu aurretik. Badakigu horrek guztiak, hau da, talde zabalagoa izateak eta sinadura metaketak, ez diola balio intrintsekorik ematen jardunari. Ez. Ezer ez da egiagoa askok hala diotelako. Beraz, ez da kopuru kontua, begirune kontua baizik, *demodé* dagoen kontzeptua alegia.¶



FITO RODRIGUEZ

Erneko al dira euskeraz irakurgai gozo, ugari, ta mardulak.
Betoz ordu onean, betoz ainbat lasterren.

Domingo Agirre, *Garoa* («Irakurleari»)

Nola irakur genitzake azken urtean kultur eremuan izandako gertaerak?

Idazleen erresuma ez da aurten batere barea egon. Aitzitik, polemika iturri izan dugu Euskadi Saria. Koldo Izagirre eta Jon Alonso *Utikan Euskadi Sariak* manifestuaren sinatzaileek «ez dugula nahi gure lanak Euskadi Sari hauetan erabil ditzaten» bazioten ere, Izagirreren *Rimmel* poema liburua (Susa) eta Alonsoren *Erretzaileen eremua* ipuin liburua (Susa) finalista izateko hautatu zituzten Euskadi Sarietako epaimahaikideek.

Miren Azkaratek, bestalde, *Utikan Euskadi Saria* manifestua sostengatu duten idazleei «errespetu osoa» azaldu arren, ez dut uste idazle bikain horiek gure hizkuntza komunitateak duen aintzatespen publikoko sari inportanteenerako galtzea, euskal literaturarentzat eskubidezkoa edota mesedegarria izan denik: horretan behintzat, ziur nago berdin pentsatuko dugula Kultura Sailburuak eta Euskal Idazleen Elkarteko buru naizenak, biok —onerako zein txarrerako— erantzukizun handiko postu banarako izendatu edo hautatuok, bata administrazio publikoan, bestea elkarte profesional batean.

Erantzukizun horretatik mintzatu nahi nuke, neure aburuetatik baino areago, balorapen gogoeta honetan. Eta nire mezu nagusia oso sinplea da, bere larrian ere: Euskadi Sariak idazle horien partaidetasuna, era batekoa nahiz bestekoa, ak-

tiboa zein pasiboa, galtzea, izugarrizko galera da denontzat, Kultura Sailarentzat eta Idazleen Elkartearentzat ez ezik, Euskal Herriko kultura talde, argitaletxe, literaturazale guztientzat, eta, hitz batez, euskal hiztunon komunitate osoarentzat. *Utikan Euskadi Sariak* manifestua sinatu zuten 37 idazle eta itzultzaileek hamaika liburu argitaratu dute aurren, euskal literaturaren, haur eta gazte literaturaren nahiz itzulpenaren arloan Euskadi Sarietako hautagai izan zitezkeenak. Era berean, datorren urtean Euskadi Sarien lehiatik at izango dira Edorta Jimenez, Lutxo Egia eta Asier Serranoren aurtengo nobela berriak; Eider Rodriguez eta Lucien Etchezaharretaren ipuin liburuak; Jose Luis Otamendi, Jon Arano, Gotzon Barandiaranen olerki liburuak; Jon Alonso, Txillardeggi eta Markos Zapiainen saiakerak; Joxan Elosegik, Idoia Gilleneak eta Juan Mari Mendizabalek egindako literatur itzulpenak... Hau da, ene aburuz behintzat, Euskadi Sariak haien izenak galduta asko galtzen duela literaturazale guztientzat gauza nabarmena izateaz gain, areago beharko luke izan, jakina, Kultura Saila kudeatzen duenarentzat.

Kultura Sailean Euskadi Sariaren antolaketetan behin baino gehiagotan akatsak izan direla badakite, eta gauza asko gertatu direla Euskadi Sarien historian, bai 1997ra arteko bere lehen ereduan, bai azken urteotakoan ere. Horregatik, agian, Literatur Sarien inguruan hausnarketa berriak egiten ari direla badakigu... baina, horretan ere, administrazioak ezin dio sektoreari alde aurretik prestatuta dituen egokitzapenen berri eman soilik bertan dauden kezkek eta proposamenak aintzakotzat hartu gabe; bestela, orain arte bezala, lortu nahi den zilegitasuna nekez erdietsiko da. Euskadi Saria euskal kulturaren arazoa da. Eta *Utikan* manifestuaren sinatzaileak galdu behar ez ditugun neurri berean, ez dut uste Euskadi Sari erabat duina eta erabat aintzat hartua izateko aukera ere galdutzat eman behar dugunik. Gure literaturak Nazio Saria behar du. Denontzat agurgarria eta onargarria, oraingo honetan, bistan da, Euskadi Saria izan ez dena. Euskaraz idatzitakoa saritu dezagun... eta, izatekotan, erdaraz

ere bai. Frantsesez edo ingelesez, edota auskalo zein erdara motaz euskaldunok argitaratutakoa saritzeko aukera ere ireki dezagun betiko gaztelaniaren menpekotasuna gaindituz. Eta gauza bera egin dezagun itzulpenekin. Euskaratik beste hizkuntzetara itzultako testuak ere sarigarri bihur ditza-gun... edo jadanik ez du inork gogoan Mitxelenaren «Gure arbaso zaharren baratza» artikulu haren irakurketa?

Baina gure gizartean, ordea, ondare kulturala defendatzeko interesa ez ezik antolatzeko ohitura baliotsuak ere badaude. Azken urteak utzi digu horren adibide gardena: **Praileaitz**.

Praileaitzen Lagunak elkargoa Praileaitz I eta horren inguruari buruz egiten ari den defentsa jada aurrekari nabarmen bilakatu da gisa honetako gatazkak erabakitzeko, eta halaber da erreferente argia hemendik aurrera Euskal Herriko Kultur Ondarearen defentsa jardunak burutzeko. Gure ibilbidearen hasieran mamitutako ondorio zoriontsu bat izan zen kulturaren mundua bildu egin genuela, haitzuloaren defentsarako liburu bat publikatzeko asmoarekin harremanak abian jarritz. Aldi berean, haitzuloa eta bere inguru naturala defendatzeko Praileaitzen Lagunak elkargoa sortzea izan zen beste asmo bat, Kultur Ondarearen kudeatzailerik anartean egin gabe zeukatena.

2006ko abuztuan margoak aurkitu zirenetik, Eusko Jaur-laritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dute zegokien bizkortasun eta efikaziaz bete ondare arkeologikoari buruzko ordenamendu juridikoa.

Harpearen inguru guztia dago babestu beharra, non gure historiaurreko garai ezberdinetan antzinateko arbaso izan ditugun biztanleek beren eguneroko bizitza egiten baitzuten. Kobazuloaren inguramenduak hartzen ditu muinoa —gaur ia harrobiak erabat hustua—, kanpoaldeko ingurua eta hegiak, bere perimetro osoan babesa ematen diolarik.

Lehen solaskideekin izan genituen harremanen ondoren, Debako udalak bakarrik adierazi zigun gaiarekiko interesa. Bihotz-altxagarri gertatu zitzaigun Udala prest ikustea gal-

dutako denbora-zati bat berreskuratu nahirik, Praileaitz I eta eskualde osoaren etorkizuna perspektiba zabalago baten bidez defendatzeko asmoz, guztia balioan jartzeko gertu. Horrela sortu zen *Praileaitz I* izeneko liburua atondu eta kaleratzeko ekimena.

Praileaitz I liburuaren publikazioa memoria kolektiboaren ekarpena izan da eta mintzatzen ari naizen egoeraren salaketa etengabea. Aztarnategi eta bere inguru kulturalaz prestigiodun liburua da, egitura fisiko eta edukiz ongi osatua eta, halaber, gure ustez behintzat, egokia Praileaitz I haitzuloarentzat nahiz bere inguru kulturalarentzat babes maila ahalik eta handiena lortzeko bertako 210 egileen borondatearen jarrera islatzen duelako. Horrela herritar iritziaren arreta baliarazi eta erkidego guztiko ondarearen zaintzaren administrazio erantzuleen baitan gaur nagusi den sentikor-tasun eskasiaren aurrean kontzientzia piztu nahia ere.

Zedarria da eta prozesuan inflexio-puntua adierazten du, aktoreak beren izen-deiturez aurkezten dituen eszenatokia delako, eta horrela gaur arte zeinahi zentzutan gai horri buruz parte hartu dutenen erantzukizunaren oroitzapen fede-emailea betiko gorde dezan. Aktoreak liburuaren egileak dira; beste aktore batzuk, Praileaitzen Lagunak elkargoaren batzordea osatzen dugunok, bere edizioaz arduratu ginenak, eta orobat Agiria laguntzen duten guztiak; halaber ikerketa ekipoko arkeologoak; hainbat erakundetan enklabearen babes eta zaingoaren erantzuleak, harrobiaren eta Praileaitzi eragiten dioten beste erabaki eta lan-eremuetako erantzuleak.

Baita Praileaitzen ondarea salbatzeko burutzen ari garen ahaleginaren lekuko bezala geratuko den liburuan denok biltzera behartu gaituen pertsona ere, Aztia izan ala ez.

Mundu mitiko hori ahaztu gabe ezin da ahantzi aparteko irakurketa merezi duen eta Eusko Ikaskuntzak bultzaturik aurten jaio zaigun «**Jakiunde**» izeneko **elkartea zientifikoa** (ikus *Asmoz ta Jakitez*, 183. zenbakia).

Erakunde berriak gogora dakarkit 1989an *Jakin* honetan idatzi nuen «Jakintza eta botereen arteko harreman zahar-
rak» izenburuko artikulua.

Jean eta Nicole Dhombres-ek argitaratuko *Naissance d'un pouvoir: sciences et savants en France (1793-1824)* (Payot, Paris, 1989) liburua irakurri berria nuen. Hantxe, garden eta zorrotz azaltzen zitzaigun aspaldidanik kudeatutako mari-
dajea, hau da, gizarte moderno deitutako honetan zientzia eta gizartearen beraren egituren artean sortzen dena. Sintesi zaila bezain beharrezkoa, zeren ezagutzaren bideak nekez izan ohi dira politikarako laguntza, haren menpekoak baizik.

Liburuaren kontraesan horren muina aztertu nahi zuen, Historia dela medio, dilema historiko bati emandako zen-
bait irtenbide, alegia: *Botereak berari komeni zaion zientzi mota lantzen du, ala Zientzialariak boterean eragiten du berak nahi duen eran?*

Horrela planteaturik abstraktu xamarra ematen badu ere, egileek mugatutako epe historikoan, berriz, guztiz argi azal-
tzen zaigun kontraesana dugu. Eskola Politeknikoen sorrerak Frantzian eta zientziak irakaskuntza «curriculum» ez-
berdinetan lortuko duen garrantziak prestatu zioten bidea egun hezkuntza munduan ikerketa «ezarriei» ematen zaien inportantziari. Era berean, eta armada modernoa (napoleo-
nikoa) agertuko den bezala, zientziak berak, egoeraren al-
daketak eraginda, ikerketa berriak landuko ditu eta haiek modu berri batez helaraziko dira. Hitz bitan esanda, *zientzia egiteko era nola aldatuko zaigun erakutsi du liburuak.*

Aipatzen ari garen ikerketan adierazitako hori zehatz-me-
hatz aztertzen da Frantziako historiaren aro mugarri batean (1793-1824). Hauxe da hauxe erabili nuen irakurketaren ezaugarri nabarmenatarikoa. Onerako eta txarrerako.

1793an Konbentzioak desegingo ditu lehenagoko Zientzi Akademiak, «aristokratikoak» zirelakoan, eta ondorioz zientzialariak barreiatu ziren alde zurreko elkarteak ahaz-
tuz. Batzuk desagertu ziren, besteak isolatu, eta finean zientzialari berriak sortzean beste fenomenoetara ekingo diete el-

karte berrien bidez. Zientziaren Komunitatea, beraz, berregituratu egin zen.

Aldez aurretik zientziaren konpromiso politikoa ederki ikerturik azaldu bazaigu ere (ik. D. Rei: *La revolución científica*, Icaria, Bartzelona, 1978, 39-40 or.), liburu honek, berriez, mendebaldeko zientzi egituraren sorrera aztertzen du sakonki. Beraz, jakintza garaikidearen jaiotza.

Eta, esan bezala, onerako eta txarrerako zehazkizun historikoak direla medio, hau da, denbora eta espazio mugaketa-
ren arabera aztertu nahi den arazoari dagozkion aldagai guztiak kontuan izanik ikertu zuen.

Izan ere, aipatutako ikerketak Frantziako historiaren alde aurreko aro jakin bati besterik ez dio ekiten, zientziaren bilakaera fenomeno isolatu gisa ulertzea posible izango balitz bezala.

Ez du kontuan izaten betidanik funtsezkoa izan dena zientzialarien artean, hau da, estatu ezberdinetako mugaz gaineko komunikazioa eta informazioaren helaraztea, nazioarteko ikerketetan historikoki erabilitako loturak, etab.

Aukera egiterakoan egileek argi eta garbi fundatu nahi izan omen zuten liburuaren tesi nagusia, alegia, *zientziaren garapena soilik politikaren ikuspegitik uler daitekeen bilakae-
ra dugu.*

Hori frogatzeko erabilitako prozedura zehatza gehi aukeratutako aroa (non zientzi-komunitate modernoak egitura garaikidea hartuko duen) egindako lanaren garantiak ditugu. «Mugaketeria» eta guzti, ildo honetatik argitaratutako lanen chauvinismoaz aparte, azterketa honek frogatzen du nahi duena: zientzia eta politika nahasten direnean politikak agintzen duela.

Baina dilemak berean dirau. Frantziako Iraultzaz geroztik zientzia egiteko modua aldatu bada... Beraz, egitura politiko eta zientifikoaren artean harreman estuak baldin badaude... Nork agintzen dio nori?... Dilema ala galdera bakarrik bada ere, ez dugu segitu beharko irakurtzen horretaz zerbait gehiago esan ahal izateko, Jakiunderen sorrerak zientzia eta

politikaren arteko loturak modu erabat gardenean erakusten baitigu egun. Horra, urriaren 25ean, Erakunde Zientifikoaren sorrera egunean Ibarretxeren hitzak: «bide erakusleztat balio izateko gai... gizartearentzat onuragarri... bere ekinez eta aholkuez bide egokiak aurkitzen lagungarri... herrialdearen zerbitzura egon behar du... alor guztietan gertatzen diren aurrerabideen berri gizarteari helaraztean lagunduz»... Zertan lagundu, ordea, eta zeini?... Praileaitzen inguruko eztabaidari zenbait ekarpen egin ahal izateko (jadanik Eusko Ikaskuntzako Arkeologia Saila nahiz Aranzadi Zientzi Elkarte bera Eusko Jaurlaritzaren jarreraren aurka agertu dira...)? Tren lasterraren aferan, agian? Edo, Herriaren kontsulta gauzatzeko bidean?

Euskara arautzeko legeak mende laurdena bete duen urte honetan, ia oharkabean pasatu da urteetan zehar funtsezkoa izan den polemika: eskolarako hizkuntz ereduen moldaketa. Izan ere, euskara eta gaztelania ikastea bermatuko duen hizkuntz eredu baten alde metatutako esperientziak ikertu ondoren ondorioztatu da aspaldidanik genekiena, hau da, D eredu euskalduna izan dela aurreikusitako hezkuntza helburuak lortzeko balekoa zen bakarra eta, beraz, Eusko Legebiltzarrak hobetsi du eredu bakar horren alde jotzeko hautua.

Nahiz eta egoera nabarmen aldatu eta heziketaren arloko askok eta elebitasunaz hainbat adituk aspaldidanik defendatu dugun ezin zitzaioala hizkuntz ereduen sistemari denbora gehiago eman, urteak behar izan dira ebidentzia horren aurrean errenditzeko.

Elebitasunari buruz egindako ikerketa bat ekarriko dut hona: 2005ean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak berak eginikoa, ondorioak kezkatzeko modukoak direlako. Ikerketako proba, ahozkoa eta idatzia, DBHko 4. mailako —16 urteko— 1.191 ikaslek egin zuten. Proba hori ingeleserako «First Certificate» izenekoaren baliokidea da; hau da, zailtasunari dagokionez, maila ertainekoa da. Euskarazko probekin alderatuta, EGA tituluarena baino apalagoa da.

Eusko Jaurlaritzaren datu estatistikoaren arabera (Eustat, 2004), DBHko ikasleek honela eskolatuta zeuden, hizkuntz ereduari begira: A ereduan, %29; B ereduan, %24, eta D ereduan, %47. Hezkuntza Sailaren esanetan, A ereduko ikasle bakar bat ere ez da proba gainditzeko gai izan, B ereduan %27,5ek gainditu du, eta D ereduan %57,2k.

Galdera da, zenbat ikasle ez dute proba gainditu? Datu hori jakiteko, emaitzak eta eredu bakoitzean dagoen ikasle-kopurua kontuan hartu behar dira. D ereduan (%47), ikasle guztien %27k gainditu zuen proba, eta B ereduan (%24), berriz, %7k. Esana dago A ereduko ikasle bakar batek ere ez zuela proba gainditzea lortu. Horrenbestez, hiru eredu-tako ikasle guztien %34k (27+7) soilik lortu zuen proba gainditzea, eta DBHko 4. mailako neska-mutilen %66 gainditze marraren azpitik ibili zen.

Egia da EAEko ikasleen emaitza akademikoak espainiar Estatuko ikasleenak baino hobeak direla. Bada, eskola-errendimendua, bistan da, ez du eragin kaltegarria euskal ikasleen errendimendu akademikoan. Era berean, A ereduko ikasleen eta D ereduko emaitza akademikoaren artean alde nabarmenik ez dago matematikan, irakurketan, zientzia-ikasketan eta problemen ebazpenean. Eta gainera, jakina denez, euskararen ikaskuntzari dagokionez, emaitzarik onenak D ereduko ikasleek lortu dituzte.

Bestalde, eskolak euskararen garapenean aurrerabide handiagoa egin ez badu, ezin uka legezko arazoez gain beste hainbat arazorengatik izan omen dela: familien erabakia, euskaraz irakatsi ahal izateko irakasle prestuen gabezia, ikasmaterialen eskasia, adostasun politikorik eza...

Egoera horren arabera, ez da batere harritzekoa A ereduan eskolatutako gazte batek 2006ko maiatzean euskal administrazioaren aurka salaketa aurkeztu izana Bigarren Hezkuntza amaitzean euskara-maila baxua zuela-eta kalteak izan zituelako...

Azken 24 urteotako bilakaerari begira, Euskal Autonomia Erkidegoan A eredu (gaztelaniazko eredu) %48tik %7ra pa-

satu da 1983-84 eta 2004-05 ikasturteak bitarte (Eustat, 2006). 2003-04 urteko matrikulazioa honakoa izan zen: A eredia, %7; B eredia, %29; D eredia, %64, eta X eredia, %0,5.

Hainbat arrazoiengatik (prestigioa, estatusa, esperientzia...), familia askok eredu euskaldunenak hautatu izan dituzte. Sozialki, praktikan, A eredia bazterrean geratzen ari zen, desagertu arte. Badirudi familiek argi ikusi izan dutela A ereduak ez dituela emaitza onak lortzen euskararen ikaskuntzari dagokionez, eta hezkuntzako aukera gisa aintzat ez hartzea erabaki dute. B eredia, mistoa, bere horretan dago, ikasleen %30 inguru hartuz eta, askotan, A eredia bera elikatuz.

Urteetan, «A eredia bere horretan mantentzearen aldeko» alderdiek gizartearen %40 inguru ordezkatu dute (2004ko hauteskundeak), baina EAeko familien %8k bakarrik aukeratu du eredu hori. Horrek agerian uzten du gatazka, hizkuntzaren arloan baino, politika arloan eman izan dela.

Esperientziak eta ikerketek frogatu dute egokiena D eredia izan dela, eredu horrek bakarrik bermatzen duelako eskolatzeko-aldia amaituta ikasleek euskara nahiz gaztelania menderatzea.

Dena den, urte luzez hizkuntz ereduari buruzko eztabaidak bizi izan eta gero, ematen du egun eredu horien etorkizunaren inguruan gutxieneko adostasuna lortu dela. Ikusiko dugu, ordea, nola eramaten den eskoletako praktiketara...

Amaitzeko, berriz, amaitu beharko zen aferaz mintzatuko naiz: **Torturaz...** eta zehazkiago, TATen ekimenez, aurten sortu den Torturatuen Asanbladaz eta haren ekarpenaz. Ezin ahaztu honetan, jakina, gure artean lan honetan aitzindaria izan den eta aurten joan zaigun Eva Forest idazlea eta argitaldaria. Zeren torturaren ikusezintasunaren aurrean lekukotasunak jaso, bildu, landu eta argitaratutako bere ekarpenak ere kultur ekarpenak izan baitira zalantza izpirik gabe.

Amnesty International-ek aurten argitaratutako txostenak («Gatza zaurian: polizien egiazko inpunitatea tortura eta tratu txarren kasuan») berriz ere bistan utzi du espainiar

gubernua, eta nazioarteko hainbat erakunde ezagunek ildo horretan egindako azkenaurreko salaketa da.

Baina aspaldiko partez, TATEk berak berriro hartu du bere zereginen artean, ez soilik torturatuen elkartasuna bideratzeko kemena, baizik eta Eva Forestek, urteak joan urteak etorri, horren inguruan eskainitako lan kulturala: bideak ekoitzi, liburuak apailatu nahiz zabaldu eta eztabaidari behar besteko maila ideologikoa eman...

Honetan ere, badira irakurketa berriak aurtent...¶



ALLANDE SOKARROS

Etxebarre 007: kultura herriratu

Jakin-en urteroko Euskal Kulturaren Balantzea atzera begiradan parte hartzen dudanetik, irakurleak ohituta daude nire txoko maite Zuberoako kontuei —eta ia hauei bakarrik— arreta jar diezaiedan. Egia da ere aukera aski gutxi dagoela gure esparrutik kanpo oihartzunik izan dezaten, *Berria* egunkariaren eta *Argia* astekariaren salbuespen ohargarriez kanpo. Esaterako, Euskal Telebista deritzoten horretan, pastoralak filmatzeaz eta Aste Santu inguruan edo lo egin ezinean dauden bakan batzuek ikus ditzaketen gaueko ordu galdue-tan pantailaratzeaz kanpo, ezer gutxi jakingo da, euskal gizartean, Zuberoako kultur edo beste arlotako gertakariez.

Zuberoako kultur gertaeren aipagaietan aurten ere tema-teaz gainera, are esparru mugatuagora joko dut, lehendabizi behintzat... nire sorteri eta bihotzeko kokaleku Etxebarre herria izango baitut hizpide. Izan ere, iragan uztailaren 7an eta irailaren 1ean Etxebarre 007 ikusgarri sorta oso bereziari harrera egin zion 70 bizilagun baino gutxiago dauzkan nire herri honek. Ttittika Rekalt adiskidearen eta Hebertik kultur batasunaren asmakizunetik sortu eta gauzatu den kultur animazio guztiz berezia izan da Etxebarre 007. Nolabait laburbiltzearren, «herri bat kulturaz beztitzea» izan da helburua, hots, herri bateko bizilagunak ez daitezen soilik harrera egile eta ikusle arruntak izan, baizik eta esku-hartzai-leak eta jarduleak. Erabat egitasmo berria eta berezia zen eta arakastatsua izan dela erran daiteke, zalantzarik gabe.

Guztira, zazpi ikusgarri eta hiru erakusketak osatu dute Etxebarre 007 kultur ekitaldia. Herri txiki baten ezaugarri eta

baliabideei egokituta, jakina, baina egitasmo horren espirituairen ildotik ere, ikusgarri hauek modu oso xumean antolatu ziren. Ikusgarri gune izan dira laborari etxetako lorioak, barrukiak, artegiak, gutxien-gutxieneko apainketaz eta tresneriaz hornituta. Bi gaualdi horietara etorri ziren milatik gora ikuslek oso gertakari berezia bizi izan dutelako sentipena gordeko dute duda barik. Oso berezia baita Arrabalen *Gernika* obraren giro dramatikoaz gogobetetzea laborari etxe eta behitegi baten artean eta mendi ingurune baten erdian, hurbileko zuhaindi eta sasietan hontzak, kahakak, eskinosoak, mikak, zozoak, azeriak eta beste animaliarik entzuten zelarik.

Oso berezia ere, Ttittika Rekalten poeta gaitasunez Etxebarreko leku izen batzuk historia baten hari bilakatuak eta Mixel Etxekopar, Peio Kaxenaut eta Jeremi Garatek soinu beztiturik, kantaturik eta antzezturik, laborari etxe bateko lorio xaharrean. Beste ikusgarrietan bezala, han zeuden etxebartarrak eta ezagutzen dituzten hainbat leku gisa horretara aipagai entzutea arraroa iruditu bazaie ere, erabat ziur nago gozamenaz hartu zituztela une haiek. Halaber, Antton Gomez Arcosen *Ana Non* ikusgarri kantatu eta dantzatuaren lilura bizitzea ikusleaz lepo beteta zegoen Aizagerrea etxeko aitzinaldean, edo Amaren Alaba neskatila kantariak Mendia etxeko sabai-zubitik Bernard Mancieten testu dramatikoaren abesten entzuteagatik. Esan beharrik ere ez, zelako emozioz bizi izan zuten —etxebartar eta gaineratikoek— Lucien Larraus Ligi Jora etxeko semea *Bereterretxen kantorea* ematen, Etxebarreko hilerri harresi gainean alde batetik bestera ibilita, eta Ezpeidoia etxe entzutetsua urru-nean baina pare-parean zegoelarik.

Gizatalde baten irudikatzea

Etxebarre 007 kultur gertakariaren osagai guztiz garrantzitsua eta egundoko ideia izan da ere Etxebarreko biztanleen potretak egitea eta horiek ikusgai jartzea Etxebeste etxeko artegian. Christophe de Prada argazkilariak eginiko eta Gon-

zalo Etxebarria margolariak beztitutako potreta horiek gizatalde baten irudi orokorra eskaini dute, argazkitan hartua izatea onartu dutenen begirune osoz baina. Beste garai eta lekuetan gertatu izan da gizatalde oso bati modu horretara arreta jartzea eta beti bada karikaturan sartzeko arriskua. Argi eta garbi erran daiteke ez dela horrelakorik gertatu Etxebarreko herritarren potretak egitean eta ikusgai jartzean.

Argazki horiei ikusmin handiz begiratzeraz etorri ziren, iruditan agertzen ziren haiek beraiek, baita auzo herrietakoak zein urrunagotik Etxebarre 007 ikusgarrietara hurbildu zirenak ere. Gizatalde baten irudikatze soziologiko orokor bat dirrela esan daitekeen argazki hauekin orain zer egingo den, ordea, ez da argi geratu, eta hori da Etxebarre 007 kultur gertakariari egingo niokeen kritika bat. Uste dut argazki horiek nonbait egotekotan, Etxebarren egon behar luketela. Esaldi korapilatsuetan sartu gabe, argazki hauen jabetza intelektuala —nolabait adieraztearren— etxebartarrek gordetzen dutela iritzi diot eta Christophe de Prada argazkilari adiskidea horrekin konforme dagoela ziurtatzen ahal dut. Anartean, argazki horiek ikusteko aukerarik bada Christophe de Pradaren Internet gunera sartuz, www.pirenifoto.info helbidean.

Argazki horiek herrira itzultzea gutxienez zor zaie Etxebarreko herritarrei, zeren eta gogoz eta adorez partaide izan baitira —ez soilik euren potretak egin daitezten onartzearekin— Etxebarre 007 kultur ekitaldian. Eta ez da uste izan behar edozein herritan harrera eta esku-hartze maila bera egongo zenik, ezta ziurrenik ere. Gizarte aztertzaile gaitasunik eduki gabe, jakin badakit gizataldeen artean —eta herri bat gizatalde bat da bere baitan diren norbanakoen ezauzgarri bereizgarriekin—, giza taldeetan beraz, ezberdintasun nabariak badaudela. Nehor auzitan jarri gabe, hobeste edo gutxieste kontuetan sartu barik, erran daiteke herri batzuk «irekiagoak» edo beste zenbait «itxiagoak» daudela. Objektibotasun falta leporatuko zaidalako arriskuarekin, baina nire herritarrak ondo ezagutzen ditudala argudiatuz, argi erran dezaket Etxebarreko jendea guztiz gogo irekikoa dela.

Basabürüa haranaren zoko batean, bidea hantxe amaitzen den Zuberoako herri bakarrean bizi arren, etxebartarrak harrera on egileak izan gara betidanik. Esperientzia berriekin topo egitea laket zaigu eta gertaera guztiz ezohikoak ere ikusmin eta jakin-minez hartzen ditugu. Horiek horrela, Etxebarre 007 bezalako ikusgarri guztiz berezi eta berritzailearentzat leku egokienetatik izan zitekeen.

Mendebaldeak badu ekialdea... eta alderantziz!

Nire sorterrria harrera egile eta esku-hartzaile izan den kultur gertakarietan gehiegi luzatu naizela ohartuta, laburrago ibili beharko dut beste gertaera bat aipatzean. Aurreko urteetan eginiko kroniketan behin eta berriro esan izan dut muga batek banandu egin gaituen euskal herritarren artean elkarren ezagutza eskasean gabiltzala, baita harremanak garatzeko baliabide guztiak —garraioetakoak, informaziokoak, giza komunikaziokoak— eskuko ditugun egungo garaietan ere. Ez dira hain erraz ezabatzen —edo murrizten behintzat— mendetako giza bilakaera historikoak. Horretarako dira horren mesedegarriak Bilboko Mendebalde kultur eta jakintza trukaketa elkarteak iragan maiatzaren 25 eta 26an antolatu zituen jardunaldiak bezalako ekimenak.

«Mendebaldeak badu ekialdea» izenburu polita jarri zieten Mendebalde elkarteko adiskideek Zuberoa hizpide izan zuten jardunaldiei. Geure herrialdearen atal ezberdinak hitzaldi eta mahai-inguruen bitartez aipatzera joan ginen zuberotar batzuk. Bilboko Batzar Nagusietako aretoan hizlari jardun zailean ahaleginetan ibili ginen beraz: Xan Bordaxar Zuberoako herri kantugintzaren eraberritzaile aurrendaria; Junes Casenave dagoeneko aurkeztu beharrik ez den euskal kultura idatziaren langile porrokatua; Beñat Etxebest etxebizitza saleroslea, hots, Zuberoan, eta Ipar Euskal Herrian oro har, oso minberatsua bihurtu den atal bateko jardulea; Mixel Etxebest industrialaria eta euskararen sustatzailea; Jakes Etxeberri Urdi-

ñarbeko hargin enpresaria eta Bil Xokoa kultur elkarteko arduradun nekaezina; Filipe Etxegorri Bizkaian aspaldi bizi izanagatik bere jatorria, hizkuntza arloan, hazten jarraitzen duen zuberotarra; Battittu Coyos hizkuntzalari trebe eta suharra; Jean-Louis Davant eta Txomin Peillen Zuberoako euskaltzain eta idazle oparoak, hegoaldearekin aspaldidanik zubi egileak; lehenago aipu izan dudana Ttitika Rekalt irratilari eta kultur lanetako berritzaile ausarta eta ni neu Zuberoaz aurkezpen orokor bat emateko behartu nindutena.

Jardunaldi horietan entzun-ikusle eta partaide kopuru mugatua egon arren, hitzordu guztiz baliozkoa izan dela deritzot. Beste behin ere deitoratzekoa da informazio hedabide handiek —edo handiustea duten horiek— muzin egin izana horrelako ekitaldiei. Hitz egite eta iritzi trukatzeko interesgarriak egoteaz gain —ez naiz nire kasuaz mintzo, ordea— Mendebalde elkartearen jardunaldiak bezalako antolaketek euskaldunon arteko elkar ezagutzeari laguntzen diote. Han ibili ginen zuberotarrek gure lurraldeaz zer edo zer jakitera eman bagenien —hala izan dela espero dugu behintzat— jardunaldietako entzun-ikusleei, guk geuk ere Zuberoaren kontura inoiz ikasi ez genituenak jakiteko aukerarik izan genuen. Hala, Mendebalde elkarteko arduradun Kepa Altonaga adiskideak ‘Atharratzeko taldea’ deitu dion lagun multzoari buruz jakinean ezarri dizkigun argibide harrigarriak. Kepa eginiko ikerketa eta azterketa sakonei esker, jakin dugu XX. mendearen erditsuraino Ipar Euskal Herriaren kultur nortasuna, gizarte aurrerakuntza eta ekonomia garapena euren gogoeta eta jardunetan bateratzen zituen euskaltzale multzo bat lanean aritu zela, eta nola lanean aritu ere.

‘Atharratzeko taldearen’ ekarpen handi eta guztiz ezezaguna

Kepa Altonagak, arrazoi osoz, «euskarazko prosa zientifikoaren aurrendari» gisa aurkezten dituen lagun horien artean —gutxi edo aski— ezagun geratu direnetan aipatu be-

har ditugu: Albert Constantin Atharratzeko medikua, Dominique Iribarne, hori ere adopzioz atharratarra eta, bestea beste, lehendabiziko gasnategi kooperatibaren sortzailea, Xemark eta Marcelin Zügün Zalgizeko etxeko jaun osaba-ilorak, Grazien Istillart Makeako jaun auzapeza, eta Felix Larrieu medikua, sortzez mauletarra baina gazte-gaztetik Paris aldera bizitzera joan zena eta Montfort-l'Amaury hiri entzutetsuko auzapez bilakatu zena.

Atharratzeko talde horrek eginiko lan oparoen artean, Lehen Mundu Gerra zartatu aurretik —1910 eta 1912an, oker ez banago— antolatu zituen batzarrak aipatu beharrekoak dira, labor bada labor. Garai haietako kazetek —*Eskualduna* astekariak eta *Ziberoko egünaria* urtekariak esaterako— ziotenez, Zuberoako ehunka laborari bildu ziren Atharratzeko eskola katolikoaren gerizan, nekazaritzako gaiak sakon jorratzen zituzten hitzaldiak entzuteko. Eta hori guztia euskaraz egiten zen! Gaur egun, kasu oso bakan batzuk salbu, oso zaila zaigu pentsatzea bilera bat —are gutxiago dozenaka edo ehunka lagun biltzen dituen batzar bat— euskaraz egin dadin... hamar euskaldunen artean erdaldun bakar bat egotea nahikoa delarik dena erdara hutsera lerrarazteko!

Atharratzeko talde horren partaideen artean aipamen berezia mereziko luke Felix Larrieu medikuak, zeren eta bere sorterritik aldentuta bizi zen arren, Zuberoako euskaraz osoki egina zen urtekari bat —*Ziberoko egünaria*— argitara eman baitzuen, dozena bat urtez, Paris aldetik. Kepa Altonaga ahanzturaren putzu beltzetik ateratzen hasi arte —eta egia erran Joxemiel Bidador idazleak ere aipu izan zuelarik *Euskaldunon Egunkaria*-n—, gaur egungo euskaltzale gutiz gehienek sekula aipatzen entzun ez genuen pertsonaia horren bizi-urratsak eta euskarazko lan oparoak ezagutzera ematea behar-beharrezkoa litzateke, modu batean edo bestean. Pentsa dezagun soilik Azkue eta garai bateko itzal oso handiko euskaltzaleekin harreman estua zuela. Horiek horrela, liburu bat edo bestelako zerbait egingo da agian Larrieu medikuaz edota Atharratzeko taldeko beste partaideez.

Ezen, erabateko garrantzia baitu, gaur egun euskararen sustatzen, hazten, garatzen ari garenontzat, ikasleentzat, eta oro har Euskal Herri euskalduna sendotu dadin gurako dugunontzat, euskaltzale aurrendari horien berri jakitea eta horiek euren garaian —eta ez ziren garai errazak haiek ere euskararen alde agertzeko— eginiko lan oparoaz ohartzea. Ez dezagun pentsa iraganeko kontu interesik gabekoak direla... zeren eta iragana —bere alde on eta txarrekin— egungoaren eta etorkizunaren bide-erakusle baita. Zuhaitz bat errorik gabe geratzean, hosto berririk ez zaiola sortuko ondo dakigun bezala.¶



ANDRES URRUTIA

Euskararen gabonak

Lerro hauen idaztea hastera noan honetan, hur-hurrean dira Gabonak. Kristautentzat, zorionaldia eta opari-garaia, nork bere lagun hurkoari estimua eta txera erakusteko aukerarik aproposena. Agintzaz beterik goazkio urte-hondarrari, etortzekoa dena joana baino pozgarriagoa izango delakoan. Balizko sentimenduen ontzian lekutuak, aurrera goaz, haizea popan, branka gora, abagune berrien bila.

Beldur naiz, ordea, euskararen gabonak ez ote diren hain alai joango. Bateko, noizik behinka eskura datozkigun inkestak, erabilera dela eta; besteko, etengabe planteatzen ari zaizkion erronka, premia, kezka eta ardura berriak. Badira, hor nonbait, horiei erantzuteko prest daudenak, langile errime eta trebeak, etorkizun hobe batean esperantzan. Urteak urte, behinola hasi zen euskararen instituzionalizazio hura aurrera doa, eta aldian aldikoa izaten da balantzea egiteko ordua, zor dena egoki haztatzeko hartzeko dugunarekin.

Festa giroan ospatu behar omen da gabonetakoa. Euskararen esparruan, aldiz, badira zer ospatu eta zer deitoratu. Ospatzekoa da euskara gero eta landuagoa izatea, gero eta arlo gehiagotara zabaltzea, gero eta jende prestuagoak jakin-mina eta lanbidea erdiestea euskararen bidez. Deitoratzekoa, ostera, ia egunero aldarrikatzen zaigun euskara-politika ororen gaintik jokatu behar hori inon ere ez agertzea, gure sakabanatze eta zatitzeak, gure adostasunik ezak, eragozten baitute, itxurakeria guztien azpitik, euskararen inguruan proiektu sendoa aurrera eramatea.

Euskararen etxean solairu asko daude. Seguru nago, gure etxeetan bezalaxe, gabon-jaiak desberdinak izango direla batzuetan eta besteetan. Beheko solairuan, kale-parean daudenetan, gazi-gozaak, apur bat mingotsak, kaletik bertatik etorriko zaien durunda beste hizkuntza batzuetan adituko dutelako. Lehen pisuan, beharbada, kementsuago, ikastolara doazen haurrek alaituko dutelako euskararen kantuekin Eguberri ingurua. Bigarren pisuan, bistan da, familiako aita-amek, euskaraz zein beste hizkuntzaz egiteko gauza direnek, izango dituzte euren zalantzak seme-alaba unibertsitate euskaldunetara igorri aitzin. Ganbara birmoldatuan, azkenez, bikote gazte bat arituko da euskaraz barra-barra, Benito Lertxundiren zein Ken Zazpiren musika ararteko dutela.

Halakoxea da gure euskal kulturaren etxea ere. Askoren-tzat, oraindik ere, baserri-sundakoa. Beste batzuentzat, erai-kin sendoa. Urliarentzat, bizitegi zoragarria dena, sandiarentzat bizileku moderno eta teknologikoa da, berendiarentzat ere kabi maitagarria dela ahantzi gabe.

Nago, hala ere, opari bera ez duela izango euskarak mailaz mailako etxeetan, guztiak ez baitira berdinak. Kontua, alabaina, ez da hori, beste hau baizik: etxe guztietan, euskarak opari hori jasotzea, txikia nahiz handia, xumea nahiz nabarmena. Dena dela, oparirik kutunena, nork bere ahalen araberakoa, baina funtsean gauza bera adierazten duena, hau da, euskara bera hitzez eta egitez aintzat hartzea.

Hogeita bost urte ez dira debalde igaro: Euskararen Legea

2007. urteko kultura-balantzea egiteko orduan, bete-betean aukeratu behar izan dut, bere pisua dela eta, Euskararen Legeak bete duen mende laurdena. Izan ere, Euskararen Legeak erakutsi zituen, duela hogeita bost urte, herri hau instituzionalizatzeko gogoia eta asmoa, gerora garatzeko aukera ekarri dutenak.

Lege hori egoera eta giro jakin batzuen emaitza izan zen, eta, gure ikuspegitik aztertuta, behin eta berriro azpimarra-

tu dira orduko adostasuna eta argitasuna, gerogarrenean euskarak zer izan behar zuen artez bideratu zutenak.

Ordukoaren ondorengoak gara, eta, zer esanik ez, oinordeko eta partaideak. Hark eman zigun aukera paregabea euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko, eta euskarari, historian gutxitan bezalaxe, eremu eta esparru zehatzak bermatzeko, besteak beste, administrazioan, irakaskuntzan eta komunikabideetan, sustatze-lana eta barne normalizaziorako lana ere baztertu gabe.

Galdera, hala ere, beste nonbaitetik etor daiteke, eta balantzea egitearekin zerikusia izan du. Lege horren ondorioak onuragarriak izan al dira euskararen biziraupenarentzat? Ba al dugu euskaldunok gure hizkuntza aurrera ateratzeko modua halako legearekin?

Erantzunak, bistan denez, mota askotakoak izan daitezke. Lehen-lehenak, legearen aldeko iritzia erakutsi dutenarenak, hots, Euskararen Legea, bere argi-ilun eta guzti, positibotzat jo, errakuntzak zuzendu eta aitzina joateko lanabesa ikusten dutenarenak. Badira osterantzekoak ere, Euskararen Legean hutsune, gabezia eta ezinak baino ikusten ez dituztenak.

Doala aurretik —eta hala idatzi dut lehengo batean— niri Euskararen Legeak zapore gazi-goza utzi didala, hala garatze-prozesuan, nola betetze-unean. Eta ez dezala inork hartu honako hau gobernu zehatz eta jakin baten kontrako kritika moduan, euskal gizarte osoak euskararekin izan dituen gorabeheren erakusle baizik.

Natorren puntura. Adostasun zabala izan omen zen 1982. urtean Euskararen Legearen inguruan. Bego horretan. Aski da legeari buruzko eztabaidak irakurtzea orduko haietaz konturatzeko. Egun, alabaina, eztabaidak beste nonbaitetik datoz, inork gutxik ukatzen baititu gaur euskararen premia eta euskararen zeregina euskal gizartean. Hortaz, euskararen ikurra hor dago. Zalantzan dagoena bestetik dator, hain zuzen ere, nondik eta guztiz eztabaidagarria izan daitekeen euskararen garatze-bidetik.

Schilla eta Caribdisen artean azalduko lituzkete batzuek tema eta kalapita, alegia, bultzatzea eta sustatzea, bateko, eta arautzea eta derrigortzea, besteko. Gizarte-kontuetan aditu den orok badaki, jakin ere, halako bikoiztasunak, maiz-sarri, bikoizkeriak direla, eta ez dutela inongo fruiturik ekartzen zin-zinezko hizkuntza-politika baten barruan. Orain arte egindakoa kareletik jaurti behar badugu, erraz jausiko gara bestelako gehiegikerietan, hau da, muturkeria merkeetan.

Aldiz, legea aintzat hartzen badugu, bat etorri beharko dugu halako puntu batean, hots, Euskararen Legeak behar duela, aurrenik, adostasun berria, ofizialtasunetik harago doana, eta, hurrenik, pausoz pauso, mailaz mailako hurbilketa, printzipio kontrajarrietan baino, errealitate adosgarrietan oinarri hartuko duena. Badira hor, esaterako, mota eta iritzi desberdinetako plangintza erraldoiak, komunikabideetan behin eta berriro errepikatzen zaizkigunak, nahiz eta gero errealitatean eragin txikikoak edota deusezak izan.

Falta dira, orobat, politikaren jarraitutasuna eta jarraibidea, euskararen inguruko hizkuntza-politika eta -antipolitika —hori ere tartean dagoelako— interes ideologiko jakin batzuen pean jarri beharrean, guztion partaidetza eskatzen eta galdatzen dutenak.

Sakon-sakonean, puntua argi dago: euskarak zer izan behar duen gure gizartean. Hainbatez, politika guztien gainetik —eta azpitik, jakina— gizarte-balioztat hartzen ez badugu, alfer-alferrik ibiliko gara, batetik bestera, gorabeheratsu eta norabiderik gabe.

Norbaitek erantzungo dit ezetzik biribilena emanez, eta, hori esaten didanean, froga argigarri moduan eskainiko dizkit egunero komunikabideek ematen dizkiguten kopuru izugarriak, bai diru-muntarenak, bai liburuen produkzioarenak, bai arlo desberdinetako errealitate euskaldunenak... Oro da on, oro azpimarragarri, batik bat, diru-laguntzak tartean badira.

Ez dut nik ukatuko diru-laguntzen premia, ez eta, horren kontura, sustatze-lana kritikatu ere. Bai, ordea, horiek

ahalbidetu duten sasimaisu askoren jokabidea, sarri askotan, sustrai ekonomiko sendorik gabe, fikziozko herri batean bizi garelara sinetsarazi nahi diguna.

Euskararena hortxe dago; euskararena izugarri bultzatu da azken urteetan. Ezin, ordea, besterik gabe onartu gure administrazio publikoen aldetik, gobernu-aldaketek ekar dezaketela euskararen politikan euskara bera gehiago edo gutxiago bultzatzea edo laguntzea, euskara gutxi batzuen dela esanez. Euskara, nahitaez, guztiona da, egunero euskaraz dihardugunona eta egunero gaztelaniaz dihardugunona ere, gure ezpainetan bi-biak —eta beste hizkuntza asko, jakina— bizirik baitaude.

Horixe behar dugu berraztertu; horixe behar dugu lekutu eta kokatu. Interes partikularren gainetik, euskara bultzatu, eta, ideologiaren gainetik, euskara sustatu, ez aingeruen sexuaz hitz egiteko, ezpada eguneroko gauzez eta zereginenez, eguneroko kezka eta pozaz... horiek baitira hizkuntzaren arima eta muina. Hartara, politika barne, politikaz harago doan hizkuntza behar dugu, gizartearen arloak bere barruan hartzen dituenak.

Bada hor tartean osterantzeko konponbidea, den-dena teknologia berriaren eskuetan uzten duena. Hori ere ukatu gabe, eta adostasun berri baterako bidean jarrita, teknika behar dugu, teknika egokia, hizkuntza dela eta, giza eskubideen artean sor daitezkeen gatazketan, eskubideen arteko lehenespenak ezartzeko gai izan gaitezkeen, inor gutxietsi gabe.

Zer ikusi eta zer ikasi badugu horri buruz Euskal Herrian, zer irakatsi eta zer erakutsi ere badugula bazterrean utzi gabe.

Hitz gutxitan esanda, Euskararen Legea, hogeita bost urte geroago, etorkizunerako tresna izan daiteke, orain arteko alde onak eta ez hain onak behar bezala ikertu eta konponbidean jartzen baditugu.

Eta, *last but not least*, esan dezadan ozenki, 2007. urtearen azkenetan, Nafarroa eta Iparraldea falta direla, horiek ere badirelako nor euskararen prisma aberatsean. *Geroak erranen.*¶



EGUZKI URTEAGA

Azken boladan, bi gertakizun esanguratsu izan dira ipar Euskal Herrian euskarari dagokionez. Batetik, Euskararen Erabileraren V. Kale Neurketak aurreko inkestetan agertutako joera nagusiak baieztatzen ditu, bai erabileraren mailan, bai erabileraren bilakaeraren mailan. Aitzitik, berezitasun batzuk agertzen dira, udalerrietako biztanleriaren eta adin-taldean arabera, funtsean eraldaketa sozioekonomiko, jario migratorio eta hizkuntza politiken ondorioz. Bestetik, mugazgandiko lankidetzak instituzionala, eta bereziki Eusko Jaur-laritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artekoa, areagotuz doa. Elkarren arteko uzkurutasuna gáindituz, asmo eta adierazpen orokorretatik, hitzarmenak izenpetzera eta egitarau zehatzak gauzatzera igaro dira, hainbat erakunde pribaturen egitasmoak lagunduz. Hala ere, mugazgandiko lankidetzak beharrezkoa bada, ez da nahikoa ipar Euskal Herrian euskararen geroa bermatzeko.

Euskararen erabilpena

2006ko datuek erakusten dute, Lapurdiko, Nafarroa Behe-reko eta Zuberoako biztanleriaren %4,6k euskara erabiltzen duela, adin-taldean arabera ezberdintasunak egon arren. Izan ere, haurren %4,8k Axularren hizkuntza baliatzen badu bere eguneroko bizian, soilik gazteen %3,6k kalean erabiltzen dute. Proporzioa zertxobait handiagoa da helduen tartean (%4) eta, batez ere, adinduen mailan (%7,6). Bestela esanda, are eta zaharragoa izan eta are eta euskara gutxiago baliatzen da, nahiz eta haurrengan berreskuratze prozesu bat

ageri den, zeren haurrak euskararen erabiltzaile handienak dira adinduen ostean.

Horrek erakusten du, euskararen erabilpen maila ahula bada eta beherakada prozesu bat nabari bada, zaharrek gazteek baino gehiago baliatzen baitute, haurrek mailari eusten diotela. Horren arrazoi nagusia euskarazko irakaskuntzaren hazkundera da, kontuan izanik ipar Euskal Herriko ikasleen %29k euskara eskolan ikasten duela, murgiltze ala elebidun sistemetan, eta %6k ikastoletan izena ematen duela. Urtetik urtera, euskara eskoletan lantzen duten ikasleen kopuruak gora egin du, nahiz eta batez ere sistema elebidunaren mesederako izan, esan nahi baita elebidun hartzaileen kopurua elebakar euskaldunena baino azkarrago igotzen dela.

Hala eta guztiz ere, haurren baitan nabari den berreskuratze prozesua datuek erakusten dutena baino goragoa dela pentsa daiteke, zeren, demografikoki, belaunaldi berriak aurrekoak baino txikiagoak dira, gurasoek haur gutxiago egiten dituztelako eta ipar Euskal Herri kanpotik datozen gurasoak eta beraz haurrak geroz eta gehiago baitira. Belaunaldi eta jatorri geografiko aldagaien eragina ezereztuz gero, berreskuratze prozesua nabariagoa izango litzateke.

Euskararen erabilpenaren bilakaera

Euskararen erabileraren bilakaerak beherakadarako joera erakusten du ipar Euskal Herrian, jakinik erabilera hori %6,5ekoa dela 1993an, %6,3koa 1997an, %5,8koa 2001ean eta %4,6koa 2006an, hau da, %1,9ko galera izan dela azken 13 urteetan. Joera horri eutsiz gero, erabilera %2,7koa izango litzateke 2019an eta %0,8koa 2032an. Ahaztea da, pixkanaka bada ere, euskara sustatu eta indartzeko hizkuntza politika garatuz doala eta euskarazko irakaskuntzak gora egiten duela.

Beherakada hori adin-talde guztietan nabari da eta, batez ere, helduen eta adinduen baitan. Hain zuzen ere, euskararen erabilpena modu jarraikian jaisten da 1993 eta 2006 artean, %6,2tik %4ra beheratuz, zeren %6,2koa da 1993an, %6koa

1997an, %5,4koa 2001ean eta %4koa 2006an. Beherakada are eta nabariagoa da adinduen mailan, kontuan izanda, 13 urtean, %11,3tik %7,6ra igaro dela. Izan ere, euskararen erabilera %11,3koa da 1993an, %10,5ekoa 1997an, %8,9koa 2001ean eta %7,6koa 2006an. Joera horren arrazoiak anitzak dira, hala nola, ez dutela euskara eskolan ikasi, ez daukatela egunero-ko bizian euskara erabiltzeko aukera handirik, geroz eta pertsona gehiago kostaldeko hirietan bizi baitira eta lana zein zerbitzuak bertan aurkitzen direlako, eta ez dutela euskara baliatzeko premiarik, ez lanean, ez administrazioarekiko harremanetan, ezta ere familiarekiko loturetan.

Haurren eta gazteen mailetan gertatzen dena bestelakoa da. Hain zuzen ere, euskara erabiltzen duten haurren kopurua mantentzen, baita pixka bat igotzen da 1993 eta 2001 artean, %5,1etik %5,2ra igaroz, ondoren %4,8ra jaisteko. Alderantziz, hizkuntza horren erabilera %3,2tik %2,7ra beheratzen da, 1993 eta 2001 artean, 2006an %3,6ra igotzeko, hau da, 13 urte lehenagoko maila gailentzeko. Itxuraz kontraesankorrak diren joera horiek ulertzeko, euskarazko irakaskuntzaren eta demografiaren datuak kontuan izan behar dira.

Hala ere, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira euskararen erabilpena beheratzen ikusten duten Euskal Herriko probintzia bakarrak, Nafarroa Garaian egonkortasuna nagusi delarik, galera soilik %0,1ekoa baita. Izan ere, 1993 eta 2006 artean, galera %1,9koa bada ipar Euskal Herrian, irabaztea %0,8koa da Araban, %7,2koa Gipuzkoan eta %1,3koa Bizkaian. Euskararen ezagupen ofizialak eta osatu zein martxan jarritako hizkuntza politikek eragin zuzena dute ezberdintasun horietan.

Mugazgaindiko lankidetzaren aurrekariak

Euskararen erabilera eta bilakaera, luzaroan nagusitu den mugazgaindiko lankidetzaren ahultasunari lotuak daude. Izan ere, azken urteetaraino, batez ere frantses Estatuak, Akitaniako Eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako Kontsei-

lu Nagusiak begi txarrez ikusten zuten «atzerriko» erakunde publiko batek dirua eman zezan ikastola bat eraikitzeko, euskarazko liburuak argitaratzeko ala eskolatik kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzen dituen elkarte bat laguntzeko. Susmoa zen nagusi; are eta gehiago jakitean hizkuntza komunitate bereko zati bat ordezkatzeko erakunde batek «Frantziako barne gaietan» bere sudurra sartzen zuela. Hesi administratiboak eta uzkurutasun politikoak gainditzeko tresna bat bezala ikusten zuten hizkuntza, lurralde batasunaren eta autodeterminazio eskubidearen bidean.

Ipar Euskal Herriko elkarte eta erakundeek frantses botere publikoetan presio egiteko erabiltzen zituzten Eusko Jaurlaritzatik, Udalbiltzatik eta Udalbidetik zetozen diru-laguntzak. Baionako Suprefetari ala Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko lehendakariari esaten zieten, ordezkatzeko zituzten erakundeek ez bazituzten euskara sustatzeko egitasmoak babesten eta laguntzen, hego Euskal Herriko instituzioak eginkizun hori betetzeko prest zeudela. Negoziaketaren prozesuan, ipar Euskal Herriko eragileek baliabide hori erabiltzen zekiten beraien beharren arabera.

Ikusiz egoerak ihes egiten ziela, Frantziako erakunde publikoek mugen bi aldeetako erakundeen arteko hitzarmen bat izenpetzea proposatu zuten, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza eta Hizkuntza Politikarako Obragintza Publikoaren arteko harremanak finkatzeko. Hitzarmen horren arabera, Eusko Jaurlaritzak ematen zituen diru-laguntzak Hizkuntza Politikaren Obragintza Publikoarekin adostu behar zituen eta bide instituzionalen bidez soilik eman zitezkeen. Akordio horrek alde baikor eta ezkorrak zeuzkan, zeren, iparraldeko elkarteek zeukaten arma nagusia galtzen bazuten eta frantses erakundeek kontrola areagotzen bazen, mugazgaindiko harremanak instituzionalizatzen zituen eta Frantziako botere publikoek, inplizituki bada ere, onartzen zuten, alde batetik, Eusko Jaurlaritzak zeresana zeukala ipar Euskal Herriko hizkuntza politikan eta, beste aldetik, euskal hizkuntz komunitate komun bat zegoela.

Mugazgaindiko lankidetzaren izaera

Lankidetzaren hori sakonduz eta gauzatuz joan da, batez ere Hizkuntza Politikaren Obragintza Publikoak Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) itxura hartu duenetik, jakinik bere eginkizunetan sartzen direla: 1) euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua osatzea, zehaztea eta obratzea eta 2) behar diren finantza baliabideak bermatzea, bere egitasmoan dauden ekintzak gauzatzeko. Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egitura finkatzen duen Dekretuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera normalizatzeko bideratu behar duen politika giltzatu eta jarraitzea eta, gai horren inguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erabili beharreko irizpideak ematea.

Lankidetzaren hori aurreko erabaki eta akordioetan oinarritzen da. Izan ere, Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak eta 2004ko uztailaren 9an Baionan izenpetutako Euskararen Erakunde Publikoaren hitzarmen sortzaileak eskaintzen duten kokalekua kontuan izanik, bi alderdiek hitzarmen bat izenpetu dute 2007ko otsailaren 7an. Hitzarmen horren xedea da erakunde horien artean hizkuntza politika gaiez mugazgaindiko lankidetzaren garatzearen aldeko borondatea agertzea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak ezartzea zein garatzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta ibilmolde arauak errespetatuz.

2007an deialdi bat plazaratu da ipar Euskal Herrian euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuei diru-laguntzak emateko. Guztira, 1.450.000 euroko gehieneko zenbatekoa jarri da, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 450.000€ eta Euskararen Erakunde Publikoak 1.000.000€ beraien gain hartzen dituztelarik. Diru-laguntza horiek indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko eta ipar Euskal Herrian egoitza soziala daukaten pertsona juridiko pribatuek jaso dituzte.

Lagundutako egitasmo eta jarduerak bat egiten dute Euskararen Erakunde Publikoak onartutako Hizkuntza Politika Egitasmoaren eta Eusko Legebiltzarrak berretsitako Planaren helburuekin. Gauzak horrela, ondorengo erronketara bideratutako jarduerak lagundu dira:

1. Euskararen ondorengoetaratzea eta hiztunak sortzea, esan nahi baita: a) familia, euskara transmititzeko tresna estrategiko gisa berreskuratzea; b) eskolaren bidezko euskararen ondorengoetaratzearen inguruan sentiberatzea; eta d) helduei hizkuntza ikasteko eta hobetzeko aukerak eskainiz, euskalduntze-alfabetatzean diharduten eragileen etengabeko prestakuntza eta baliabideak sustatzea.

2. Euskararen erabilera sustatzea, hau da: a) aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozamina uztartzea; eta b) euskal hiztunek hizkuntza eguneroko bizian baliatzeko, entzuteko eta ikusteko aukerak areagotzea.

3. Euskararen elikadura sendotzea, alegia: a) euskaraz diharduten hedabideak euskara gizartean biziartzeko eta hizkuntzaren maila hobetzeko tresna bihurtzea; b) euskarazko argitalpen kate eraginkorra egituratzea, argitalpen eskaintza erabakigarria eta eskuraeraza jendarteratzeko; eta d) toponimia euskara agerian jartzeko eta publiko berri bat euskarara erakartzeko aukera bezala baliatzea; eta e) hizkuntzaren kalitatearen alde etengabeko indarrak egitea, euskara irakastean, erabiltzean edo zabaltzean.

4. Euskararen aldeko jarrerak bultzatzea, hots, motibapena piztea, azkartzea eta egonkortzea, euskara ikastearen, baliatzearen eta transmititzearen aldeko dinamika iraunkorra jendartean sortzeko eran.

Ondorio nagusiak

Horrenbestez, Euskararen Erabileraren V. Kale Neurketak honako joera nagusiak agerian uzten ditu ipar Euskal Herriaren kasuan:

- Euskararen erabilpenaren beherakadak jarraitzen du, belaunaldi berrietako euskaldunak ez direlako nahikoak aurreko belaunaldiak ordezkatzeko eta elebidun hartzaileen kopurua elebidun osoena baino azkarrago igotzen delako.
- Haurren mailan berreskuratze bat ageri da, nahiz eta belaunaldi gazteak murrizagoak izateak eta kanpotik dato- rren biztanleriaren gorakadak, bere handitasuna gutxitu.
- Berreskuratze horren urritasuna, besteak beste, sistema elebidunaren nagusitasunari lotua dago, beti ere murgil- tze sistemarekin alderatuta.
- Eraldaketa sozioekonomikoek (mugikortasun profesio- nalak eta etxebizitzaren garestitzeak) eta demografikoek (belaunaldi berrien txikitasunak) eragin zuzena daukate.
- Euskararen ofizialtasun ezak eta hizkuntza politikaren edukiak euskarazko irakaskuntzaren eskaintzaren gara- pena mugatzen dute, batez ere.

Aitzitik, epe laburrean euskara ez denez ipar Euskal He- rrian ofiziala bilakatuko, aterabideetariko bat mugazgaindiko lankidetzaren areagotzea izan daiteke. Errealitate politiko-ad- ministratibo ezberdinen barruan eta bakoitzaren gaitasuna, nahia zein autonomia errespetatuz, hainbat egitarau, egitas- mo eta ekintza elkarrekin burutu daitezke euskara sustatzeko eta aurrerazteko.¶